



Brigitarrak omenduko dituzte



**JAI ZORIONTSUAK
OPA DIZKIZUEGU!**



ASEGURUAK Ges

**Kalitatezko zerbitzua da
gure lanaren arrazoia**

- Etxeko aseguruak
- Kotxeak
- Dendak
- Istripuak
- Erretiroak
- Enpresak
- Bizitza-aseguruak...



HARATEGIA

**Oso ondo pasa
San Pedro jaietan!**



Hipodromo etorbidea 8 • Tel.: 943 361885
Lasarte-Oria



Kale Nagusia 41 • Tel.: 943 363912
Lasarte-Oria



Fruituen eta barazkien Donostiako merkatu zentrala



**SAN PEDRO JAI ZORIONTSUAK
OPA DIZKIZUEGU !!**



Tel.: 943 376 402
Faxa: 943 376 172



www.merkabugati.com
Arrapide etorbidea 75
20160 ZUBIETA - DONOSTIA





Asteburuan

Aurten jaiak kontzentratu egin dira. Asteburuan bildu, kiribildu eta biribildu. Asteburu bero eta eroa izango da. Asteburuan ibiliko dira sanpedrotan bat edo beste. Aste hau ez da aste. Nahastea bai. Nahaste borraسته. Sanpedrotako ekitaldi gehienak asteburuan bildu dira, asteburuan biribildu dira. Asteburu borobilaren bila ibili dabil herritar bat edo beste kiribilduta. Gehiagoren eske. Sanjuanak (ez sano juanak) eta Sanpedroak elkartu egin dira asteburu beruan. Asteburu biribila, eta astea hila. Astelehen eta astearteko egitaraua, aurten, berez nahiko hustua zen, asteburuan dute herritar gehienek jai eta asteburuan bildu dituzte jai ekintzak, eta greba deialdiarekin are hustuago geratzeko arriskua zegoen. Baina jaiak ez du grebarik egiten. Eta greba egiteko deia zabaldu duten sindikatuak ere ez dute sanpedrotako egun nagusian okerrik, atseka-berik edo nahigaberik eragin nahi: “Jaiak bai borroka ere bai” leloari heldu eta “Greba bai, jaiak ere bai” egingo dute. Beraz Lasarte-Orian, hilaren 29ak bietatik izango du: greba eguna (arratsaldeko 18:00etan manifestazioa aterako da Sorgin Jaiaren gunetik), eta San Pedro eguna izango da, festetako eguna, (garai batean egun nagusia). Greba deitu duten sindikatuak ondo ikusi dute egunean zehar taberna eta jatetxeak zabalik izatea, baina arratsaldeko 18:00 eta 19:00ak bitartean itxeko proposatu dute, manifestazioak irauten duen bitartean.

Ondo ibili eta burua erabili, asteburu eta aste, nonahi baina aske, Lasarte-Orian bada martxa, bat ase arte.

B E R E Z I A

**hurrengo
alea**

txintxarri

Uztailaren 2an, BEREZIA, San Pedroak.

Festetako ekitaldietako argazkiak

OHARRA: Uztailaren 2ra arte ez da Txintxarri-rik izango; Ale berezi horretan San Pedro jaietako argazkiak argitaratuko ditugu.

Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak



Lasarte-Oriako Udala
Euskarako Batzordea



GFAko Kultura eta
Euskara Departamendua



EUSKO JAURLARITZA
KULTURA SAILA

Argitaratzailea: Ttakun Kultur Elkartea, Geltoki kalea 4, 20160 Lasarte-Oria, 943 366858, G-20407557 • **Legezko gordailua:** SS513/93 • **ISSN:** 1134-0053 • **Inprimategia:** Zeroa Multimedia, S.A.
Aleak zenbakiko: 7.700 • **Erredakzioa:** txintxarri@ttakun.com • **Publizitatea:** publizitatea@ttakun.com • **Administrazioa eta banaketa:** administrazioa@ttakun.com; ttakun@ttakun.com.
Txintxarri ez du bere gain hartzen iritzi-artikuluetan eta irakurleek bidalitako gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.



Gau_eko egitaraua

Andatza plazako gauetan denetarik izango da: larunbat gauean "O.B.K." taldearekin kontzertua, igande gauean, Flashback, Zephyr eta Desaster 92 herriko taldeen kontzertua, astelehen gauean, ABIBArekin DISCO JAIA, eta asteartean aldiz dantzaldi eta ikuskizuna Fabulosa taldearekin.



Sorgin Jaien Txosna gunean gauero egongo da giro: Larunbat gauean "Laiotz" taldearekin dantzaldia, igande gauean, Danba eta Emon taldeekin kontzertua, astelehen gauean, "Sorkun" eta bere taldea hasteko eta ondoren, gauerdia aldera, Karaokea. San Pedro egunean, asteartean, Bertsio Gauarekin esango diote agur txosnetan 2010eko sanpedroei.

Isla Plazan berbena giroa nagusituko da: larunbat gauean NEXO orkestrarekin dantzaldia; igande gauean, LA FANIA orkestrarekin; eta astelehen gauean, NUEVO TALISMAN orkestrarekin.

Larunbat gauean aterako da "danborrada" herriko kaleetan eta azken gauean, asteartean, zenbait ikuskizun izango dira. Batetik Andoni Egaña, Maialen Lujanbio, Patxi Etxeberria, Jon Maia, Ane Labaka eta Amaia Agirren bertsolarien saioa Manuel Lekuona kultur etxean, bestetik San Pedro egunari amaiera ederra emateko Su artifizialak erreko ditu ZARAGOZANA Piroteknia, eta gauerdian Zezen suzkoa aterako da Kale Nagusian. Ondoren Mania Percutoria taldeak hartuko ditu kaleak.





Gauak

A N E L A B A K A

Ordulariak orratz txikia
hamaikatik hamabira
mugitu du ta idatzi nahi dut
linterna honen argira
izar iheskor baten atzetik
eman ditut mila bira
ipurtargiak ere iluna
argiz janzten ari dira.
Gauetz zerua lastandu asmoz
etorri ohi naiz mendira,
batzutan gure mundutik ihes
egitea komeni da.
Bertsoz adierazi nahi nuenez
gauen berezko dizdira
egunsentiak harrapatu nau
ilargiari begira.

Larunbat gaua iritsi da ta
ez nago aldarte lasaiz
hona etorri ta idazteak
egingo ote dit ba gaitz?
Sentitzen nintzen lagunengandik
pixka bat aldentzeko nahiz
nire barrua askatu asmoz
nire indar eta dohaiz.
Berdin zaienez gaugiro eder
edo trumoiuzko ekaitz
mozkurtu eta etxera triste
itzuli izan dira maiz
gaur tabernetan lagun guztiak
dabiltza aurpegi alaiz
ni lehen aldiz ez naiz hara joan
ta arraro sentitzen naiz.

Gazteak gara eta alkoholak
sarritan ohi du lagundu;
beldurrak, kezkak eta damuak
alkohol artean bigundu.
Nahiz ta farolen argitasunak
sarri erotzen gaitun gu
argia gauetz lortzen duenak
etorkizuna ilun du.
Gauak minutu bihurtzen dira
ta minutuak segundu,
larunbat gaua, igande goiza
aurkako diren bi mundu
goizean jeiki eta ajea
aspirinekin leundu
gauak argitu egiten gaitu
eta egunak ilundu.

Doinua: **Martxa baten lehen notak** (Maialen Lujanbiok Euskal Herriko azken txapelketan bakarkako lanetan erailia)

Bertso sorta honekin Ane Labakak Gipuzkoako Eskolarteko Txapelketan lehen saria eskuratu zuen maiatzean.





Brigitarrak: 339 urteko historia herrian

Historia luzea dute gure artean Ama Brigitarren komentuko mojek. Okendotarren eskutik sortu zen 1.671n, gaur egun ezagutzen dugun kongregazioaren egoitza Lasarte-Orian. Familia boteretsu baten diruarekin sortutako komentua. Hiru mendetako historia luzea. Lapurreta eta txikizio ugari jasandako komentua. Lasarte-Oriaren herri sorreran eragileak. Gure herriarekin lotura estua ez dutenik ezin da ukatu, eta horregatik aurtan udalak San Pedro jaietan omendu egingo ditu. Ezagutu dezagun beraz, Ama Brigitarren kongregazioa hurbilagotik.

X VII. mendearen amaieran hasi zen gaur egun arte luzatzen den Brigitarren historia. Itsasgizon eta

almirante garrantzitsua bizi zen egun komentua aurkitzen dugun lursailean, Miguel de Okendo. Ama Birjinaren mar-

filezko irudi txiki bat zerman beti bere itsasontzietan. Behin gaiztotutako itsasoaren eraginez, hondoratu egin ziren, baina tripulazio guztia-ekin bizitza salbatzea lortu zuen. Bere aburuz, familiara aspaldian etorritako Ama Birjinaren irudi batek zeukan mirariaren arrazoia. Santa Brigitaren irudia zen hura, eta gordetzeko eta omentzeko, kaper txiki bat egin zuen bere dorre etxearen ondoan.

Santa Brigitaren babesean gertatutako itsasoko gorabehera horrek, birjina horri buruzko jakinmina sortu zion Miguel de Okendori.

Valladoliden Brigitarrak

deituriko mojak zeudela jakin zuen. Bertan moja euskaldun asko zegoenez, Gasteizen sortu zuten beste komentu bat. Hara jo zuten okendotarrak, euren etxean komentu bat eraikitzeko intentzioa erakutsiz. Okendotarrak ermita txiki bat eraiki, komentua eraikitzeko lursaila eman, eta kongregazioko mojei eskaini zieten gurtza egiteko. Hauek onartu, eta 1671ko urtarillaren 7an inauguratu zen herriko komentu.

Santa Brigitarren komentua habian jarri zenean, Okendotarrak bi alaba moja sartu zituzten, Maria Teresa eta Antonia Francisca. Haiekin batera beste bost moja

sartu ziren komentuan, bertako lehenengo komunitatea eratuz.

Inperioa handituz

Itsasgizonen eta baserritar familien alabak sartu ziren Brigitarren komentuan. Hauen mantenurako, familiak dotea ematen zuen. Familia boteretsu eta garrantzitsuen alabak sartu ziren herriko komentuan eta horrek hasieran okendotarrak emandako lurren dohaintza handitzea ekarri zuen. Pixkanaka, Brigitarrak, jabetza aldetik oso boteretsu bihurtu ziren. Aberatsak bezala ezagutzen ziren mojen artean.

Eskuratu zuten indar horren isla, Azkoitian eurak



IRIGOYEN
OPTIKA

ONDO IGARO SAN PEDRO JALETAN!

Largoenea 1, Tel.: 943 371047





Santa Brigitaren irudia izan zen Okendotarrek komentua sortzeko arrazoia.

sortutako Brigitar komentu berriaren sorrera da. Herri horretan, Okendotarrek beste jauregi bat zeukaten, bere alabengatik dotean emandakoa eta hauek kongregazioa handitzeko erabili zutena.

Indianoak

Indianoek ere eragin handia izan zuten Brigitarren komentuan handitze horretan. Ameriketara joan ziren ogibide bila, eta han lortutako diruaren parte bat bidaltzen zuten eliz kontuetarako.

Diru hori Santa Brigitaren omenez eraikitako basiliza atundu eta txukuntzeko erabiltzen zuten.

Eliz eta komentu aberatsa izan behar zuen gureak hainbeste urtetan jasotako dote eta aberastasunengatik, baina garaian egon ziren guden ondorioz, komentua eskatu egin zen, txirotu. Lapurreta ugari egon ziren. Gaur egun, komentuko eliza da alde txukunena.

Arte-ondare

Barroko estilokoa da Brigitarren komentua eta eliza. Euskal Herriko arte-ondare bezala dago izendatuta. Garai bat, estetika bat islatzen edo erakus-

ten digu. Baina zoritxarrez, kalitatezko ondasun gutxi aurkitzen ditugu bertan. Bere garaian izan bazituen ere, XVII-XIX mende bitartean desagertu ziren guden arpillatze eta sunsi-penei esker.

Gure mojak ere komentua uztera behartuak izan ziren, iparralderantz eginez. Baina, Baionan atxilotuak izan ziren.

Ihes egitea lortu zutenean Donibane-Lohitzunen babes-tu ziren. Mendian zehar Oiartzungo baserri batera iristea lortu zuten eta han, ostatu hartu.

Apaltasunean sortutako komentu hau indartsu eta esanguratsu bihurtu zen. Eta horregatik izan zen askotan lapurtua eta kaltetua.

Herriaren eragile

Aipatu bezala jabetza asko izatera iritsi ziren Brigitarrek. Dotean emandako aberastasunei esker indartsu bilakatu eta herriaren eraketan lagungarria eta eragile izan ziren.

Lasarte-Oria ez zegoenean oraindik herri bezala eraikia, guraso eta elkarteek institutu bat eraikitzeko gogor borrokatu ziren. Leku baten beharra zuten eta mojak izan ziren azkenean Goiegin zituzten lur

Santa Brigita

Suediako Brigita izan zen kongregazio honen sortzailea. 1303an jaio zen eta txikitatik izan zituen irudi-penak, zahartzaroan areagotu egin zitzaizkionak. Mariarekiko debozioa eta Jesu Kristoren sufrimenduaren inguruko meditazioek markatu zuten bere bizitza osoa.

Emakume tinko eta ausarta. Katoliko sutsua, elizaren berrikuntza eta elkartasunaren alde borrokatutakoa.

Emaztea, 8 semeren ama eta Suedia gorteko andrea. Giza maila handiko emakumea, kultura, diplomatikoa, idazlea eta teologoa.

42 urte zituela alargun geratu zen, eta izandako espiritualtasun guzti horri jarraiki Santu Salbatzailearen ordena eraitzen hasi zen, gure Brigitarren ordena hain zuzen ere. Kongregazio honen leloa "Gurutzean dago nire maitasuna" dugu. Bidegabekeriko mundu honetan dauden biktimen aldeko orazioa egin, bihozberatasunaren difusioa, ekumenismoa eta eliza kristauen batasuna, munduko bakearen aldeko oihua,... hori guztia, Kristoren ebanjelioaren jarraipen erradikala eginez aldarrikatu zuen. Kontenplaziora behartzen duen ordena da Brigitarrena; oraziora, lanera, ikasketetara eta bizitza komunera. •

batzuk dohaintzan eman zituztenak.

Aberatsak izan ziren moja hauek ondasunei zegokionez, gauza asko jaso zituzten, baina eman ere egin zuten Lasarte-Oria herri bezala eraikitzen laguntzeko. Herriarekin oso lotuta egon diren mojak izan dira Brigitarrek. Herriaren sorreran lagungarri izan dira.

Kulturaliki, gizartearekiko

eta hezkuntzarekiko eragingarri ere izan dira.

Udaletxea komentuan bertan egindako ospakizun batekin inauguratu zen, eta herriko lehen plenoa ere bertan ospatu zen. Ana Urchueguia, herriko lehen alkatea eta lehenengo korporazioko kideak komentuan aukeratuak izan ziren. Herriaren eraketan monumentu garrantzitsuenak Brigitarren komentua zen eta

horregatik aukeratu zuten ospakizunetarako.

Herriarekin oso lotuak egon dira. Klausurakoak izan arren, eta bizitza otoitzera bideratuta eduki arren, herriarekin egin dute bat. Herriarekin hartuemanak tornuaren bidez beazeukaten ere, elkarri lagundu diote. Gizarteari aurrez aurre begiratu ez bazioten ere, herriaren parte bihurtu ziren. •



**HARATEGIA
URDAITEGIA**

**NAROA
PATXI LARRAÑAGA
ANA IPARRAGUIRRE**





**SAN PEDRO
JAI ZORIONTSUAK
OPA DIZKIZUEGU!**

Kale Nagusia 39 • LASARTE-ORIA
Tel.: 943 372668 Faxe: 943 370737
patxilarranaga@telefonica.net
www.patxilarranaga.com




DEKORAZIOA


Valentine

MARKA HORIEN BANATZAILE OFIZIALA

ONGI PASA HERRIKO JALETAN!

Erakusketa
 Kale Nagusia 4 • LASARTE-ORIA
 Tel.: 943 362157
 Faxa: 943 366157

Biltegia
 Errekalde pol. 33 • DONOSTIA (Lehengo Bianchi)
 Tel.: 943 364403


 Suediako parket flotantea

- Garaiko jakiak
- Eguneko menua
- Kartako eskaintza

ONDO PASA SAN PEDRO JALETAN!



TXARTEL • TXOKO
Jatetxea
Luciano Betelu

Zirkuitu ibilbidea 1 • Tel.: 943 370192
Lasarte-Oria • Gipuzkoa

OTEGI

ONDO IBILI JALETAN!

SAGARDOTEGIA
SOLLAENEA BASERRIA

- Larunbata eta jai eguerditan irekita
- Asteartetik larunbatera gauero irekita



Zabaleta auzoa • LASARTE-ORIA • Tel.: 943 365029

URPA
AUTOBUSAK

ONDO IGARO HERRIKO JALETAN!



- Luxuzko autokarrak.
- 22, 28 eta 31 plazako mikrobusak.
- 56 plazako autobusak.
- Autobus literadunak.

Ubilluts auzoa, 55. poligonoa 9-4 • 20140 ANDOAIN
 Tel.: 943 305050 • Faxa: 943 305060
 e-maila: info@autocaresurpa.com
 web orria: www.autocaresurpa.com

Xabier Andonegi / Lasarte-Oriako parrokoa

‘Pozik, baina sorpresaz hartu dute omenaldia’

Urte ugari pasa dira moja Brigitarrak herrian ezarri zirenetik. Egunerokotasunean aldaketa gutxi eman diren arren, oinarrietan eta bizimoduan ez da horrela izan. Udalak egingo dien omenaldia aitzakiatzat harturik bere egunerokotasunean murgildu nahi izan gara. Horretarako, Xabier Andonegi, herriko parrokoarekin hitz egin dugu.

Klausurako mojen bizitza nahiko ezezaguna da...

Ulertu behar da lehendabizi bai emakume, bai gizonezkoetan, eta baita edozein erlijio-tan; budistak, islamistak, katolikoak... komentuko bizitza, egoitza barnean otoi-zari, kontenplazioari, meditazioari emandako bizitza dela. Lanean eta otoi-tzean bizitzea, hau guztia mantendu ahal izateko.

Eta horren barruan, gure herriko mojak berezitasun bat daukate, euren sortzaileak emandako izaera. Hau da, kristau guztien (katoliko, protestante...) batasunaren alde otoi-tz egitea. Ekumenismoa, hain zuzen.

Orazioa eta autoekoizpena?

Hori da. Oso antolatuta daukate dena. Orain gauzak asko aldatu dira, baina lehen jateko baratza eta animaliak zituzten. Oso garrantzitsua zen dependentziarik gabe,

mantentzea. Etxebizitza oso antolatuta, naturala eta ekologikoa zeukaten.

Hori lehen, eta orain?

Beraiek esanik, orain inoiz baino hobeto bizi dira. Zahar-rak dira, jubilatua eta dirua ingresatzen dute. Diru-sarrera baxua bada ere, oso garrantzitsua da beraientzat. Oso apal bizi dira.

Osasun arazoengatik, ezin dute baratza lehen bezala zaindu, baina oraindik hor ibiltzen dira.

Lehen ez zeukaten, ezta gizarte segurantzarik ere.

Baratza, animaliak, baina ogi-bidea ere aurkitu zuten...

Jostun moduan espezializatu ziren. Batez ere, umeentzako soinekoak egin zituzten, eta dirudinez, bere garaian, oso ospetsuak izatera iritsi ziren herrian. Donostiako denda batzuentzat egiten zuten lana.

Ni orain dela 10 urte etorri nintzen herrira, eta oraindik lan honetan ikusi nituen. Nik dakidanez, azken lana Maria Cristina hotelerako ohe-gaineko estalkiak izan ziren.

Nolakoa izaten da beraien egunerokotasuna?

Esan bezala otoi-tzean eta egunerokotasuneko lanetan jartzen dute gogoa.

Goiz-goiz jaikitzen dira, goizeko 06:00etan, eta egiten

duten lehenengo gauza otoi-tza da. Elizaren koroan bildu eta ordu beteko meditazioa, kontenplazio moduan. Elkarrekin egiten duten arren, isiltasunean ospatzen da.

Hori egin eta 07:00etan elkarteko errezoa ospatzen dute, elkarrekin abestuz. Haei *matinak* deitzen diegu, goizeko otoi-tz aldia.

Ondoren, gosaltzen dute. Energiak hartuta, gelak txukundu eta lanean hasteko momentua da. Gela handi bat daukate horretarako. Lana pertsonalki egiten bada ere, gela komunitario batean egiten da.

Goizeko 11:00ak aldera, eguneko meza inportanteena dator. Gainera herrian berezitasun garrantzitsu batekin, meza herriarekin ospatzen dela. Antzinatek datorren ohi-tura dugu hau. Komentu itxiak edo klausurakoetan normalean meza hauek barrukoak izaten dira, komentuko apaizak mojentzat antolatutakoa.

Meza ondoren, eguerdiko errezoa egiteko ordua da, bazkal aurrekoa.

12:30ak aldera, bazkalordua dute. Goiz jaikitzen direnez, goiz bazkaltzen dute. Ez dute sukaldaririk, beraz, eurak txandaka sukaldatzen dute.

Guзtiak elkarrekin bazkaltzeko toki berezia dute. Eta bazkaria isiltasunean egiten da ere.

Isiltasunean?

Bai, isiltasunean. Baina normalean eramangarriago egiteko irakurle bat dago eta erlijioz aritzen zaie.

“ Maria Cristina Hotelerako ohe gaineko estalkiak izan ziren mojek egindako azken jostun lana



1965an kontzilio Vatikanoko elizaren filosofia modernizatzea eta gizarteratzea ekarri zuen



Zorionik beroenak Lasarte-Oriako herriaren alde hainbeste egin duten moja Brigitarrei.

Hala ere, jai egunetan, urtebetetzeetan edo zerbait berezia dagoenean ez da irakurketarik egiten, bazkari librea izaten da, giroa. Eta egun horietan, kapilaua ere gonbidatzen dute, ni kasu honetan.

Eta bazkari ostein?

Bazkalosteko atsedenaldirako tartea dute. Bakoitzak bere gauzetarako du tarte hau.

Atsedean hori eta gero errosarioa errezatzen dute. Eta gero, gau bezperako erre-zorik garrantzitsuenaren ordua da, *bezperak* bezala ezagutzen direnak. Arratsaldeko 19:00etan kanpaiak jotzen ditugu gogorarazteko.

Ondoren, afaria dator eta ohera joan aurretik, otoitza berritoe ere, *completa* bezala ezagutzen dena. Izan ere, errezo honekin eguna osatu dute.

Lana eta otoitza nagusi dute, beraz?

Ordutegiz antolatuta zehatza daukate. Lana eta otoitza puntu garrantzitsuenak izanik. Gainerako gauzak horren inguruan antolatzen dira.

Betidanik bizimodu berdina eraman al da Brigitarretan?

Bizitzeko modua edo estiloa ez da asko aldatu, baina formak aldi, bai.

Herriko mojak klausurak, oso itxiak izan ziren bere garaian. Komentuan sartu eta familiarekin, herriarrek, lagunekin... zituzten lotura guztiak hausten zituzten. Zentzu guztietan itxi egiten ziren.

Komentuan sartu eta harresi baten barruan gertatzen ziren, harresi horren beste aldekoarekin kontaktua ezabatuz.

Kontaktua bakarrik moja

“ *Herrira hertsiki lotuak egon dira, eta lasarteoriatarrek hori aintzat hartzeak poz handia eman die*

mojekin. Gainerakoek ezin zituzten aurrez ikusi.

Bizitza sakrifkatua...

Beldurra ematen zuten. Baina hau aspaldiko garaietan elizan zegoen mentalitatearen ondorioz gertatu zen. Egunerokotasunak edo jendearen gorabeherak jainkoaren kontenplaziorako egin beharreko orazioetan eragin zezakeela uste zen eta hoberena mundutik aparte bizitzea zela. Horri *fuga mundi* deitzen zaio. Oso hertsirik bizi ziren.

Egun gauzak asko aldatu dira, ez?

1965an, elizan kontzilioa egon zen, legeak eta antolamenduak aldatzen hasi ziren eta berrikuntza ugari etorri ziren.

Lasarte-Oriako mojak zorionez asko ireki ziren. Jende heldua oraindik harritu egiten da eman zuten aldaketatik. Lehen ezin ziren kale-atera, eta orain egun guztia kalean zehar ikusten ditugu.

Orain, egin behar eta betebeharrak dituzte, baina modu askeagoan.

Zer ekarri zuen Vatikanoko kontzilioak?

Filosofia erlijiosoaren aldaketa. Eliz gizon eta emakumeak munduko gauzei egiten dute otoitz, baina hau ezagutzen ez badute... Errealitatea kontenplatu egin behar da, guztia ez da abstrakzioa. Munduan zer gertatzen den jakin behar dute. Lehen irratia, egunkariak, telebista... debekatuak

zituzten, egun badauzkate eta munduan gertatzen direnetaz jabetzen dira.

Eta aurren, San Pedroetako omenduak dira, nola hartu dute?

Pozik, baina sorpresaz. Momentu hauetan, osasunari dagokionez, adinduak daude. hamaika moja daude orotara, hiru mexikar eta gainerakoak gipuzkoarrak.

Brigitarrek Mexikon beste egoitza dute eta hemengoak laguntzera etorri ziren. Izan ere, hemengoak 80-96 adin tartean daude. Adinekoak dira, eta batzuk gaixo daude.

Urte asko bizi dira, beraz.

Bizitza oso erregularra eraman dutelako, eskerrak horri. Hor dago urte asko irautearen gakoa.

Beraien janari oso naturalak eta eurak landutakoak jan dituzte eta horrek bizi itxaropen handiagoa eman die. Zoritxarrez, egungo gaixotasunek eragiten diete.

Zahartzaroan egingo zaie omenaldia...

Herriaren esker ona berdin da zein adinarekin jaso. Oso pozik daude. Herriari oso lotuta egon dira eta herriak hori eskertzea poza handia eman die. Hala ere, oso urduri daude, beldur dira emango duten itxuraz.

Ikaragarritzko zurrunbiloa sortu da beraien inguruan, ez daude gauza hauetara ohituak. Argazkiak, elkarrizketak... ez dute beraien burua honetan ikusten.

Hala ere, lasarteoriatarrei eskertu nahi diete, sorpresa oso polita eta hunkigarria izan delako beraientzat 2010eko sanpedrotako omenduak izatea. •



Serranos igeltserotza iturgintza

Gas-instalazioak Berokuntza eta pintura **ONDO PASA JAIK!**

Erakusketa: Zumaburu kalea 5, atzea • Tel.: 943 366681 • LASARTE-ORIA

aldika PRODUCTOS SERRANOS

produktu bereziak

ahatekinak
ehiza eta hegaztiak
bakailao gezatua
onddoak
marinatuak
olagarroa

SAN PEDRO JAI ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUEGU!

Industriaidea 1920 943 37 70 89
Lasarte Oria aldika@euskalnet.net

ETXEZARRETA HARATEGIA

JAI ALAIK OPA DIZKIZUEGU!

Hipodromo etorbidea 2 • Tel.: 943 361379 LASARTE-ORIA

“ *Herritarrak harrituak daude. Lehen mojak ezin ziren kalera irten eta orain ez dira komentuan sartzen*

Ttakun Elkarateak aurten ere hainbat ekitaldi antolatu ditu Sanpedrotan

Azken urteetan bezala, Ttakun Kultur Elkarateak San Pedro jaietako hainbat ekitaldi antolatu ditu eta hauen helburua festetan euskal giroa izatea eta jendearen parte-hartzea bultzatzea da.

San Pedro jaiak ate joka daudela eta, Ttakun Kultur Elkarateak 2010erako antolatutako egitaraua luzatzen dizue. Herriko jaietan, parte hartu nahi izanez gero, aukera paregabea duzu, ez dago aitzakiarik. Programa zabala da, eta guztiontzat prestatua.

Kantujira

Bigarren aldiz egingo da Kantujira Lasarte-Orian jaien barruan. Xumela abesbatzak gonbidapena egin nahi die abestea gustatzen zaien herri-tar guztiei. Errepertorioa oso ezaguna izango da, abesti tradizionalak abestuko dira batez ere.

Hitzordua jaien lehenengo egunean, larunbatean, goizeko 11:30ean izango da Sagardotegi kalean. Ordu eta erdiz herriko kaleetan zehar kantuan aritzeko aukera paregabea.

Haurren herri-bazkaria

Ekainaren 28ko eguerdian, haurrak martxan ipiniko dituzte Ttakuneko begiraleek, haurrentzako herri bazkaria antolatu baitute. Urte ugari dira jada bazkari hau antolatzen dela, aurtengoa bederatzigarren edizioa izango du.

Lehenik eta behin 13:30ean hasiko da haurren kalejira, Ola kalean eta Atsobakar auzoan bukatuko da.

Bederatzi eta hamabi urte bitarteko gaztetxoentzat antolatutako bazkaria, 14:00ak aldera hasiko da. Aurtengo menua iazko berdina izango da: makarroiak, gazta, toma-tea eta postreko... sorpresa.

Bazkaldu ondoren Asterix eta Obelix jolasa egingo dute. Amaitzeko eta udarako beroa uxatu nahian, 15:00ak aldera ur-jolasekin hasiko dira. Beste



Ume eta gaztetxo ugari parte hartzen dute Sorgin Dantzari, horregatik aurten gazteenen zortzikotea ikusiko dugu.



Larunbatean, gaueko 21:00etan zikiroa eta euskal giroa jaien lehenengo gauaz gozatzeko.

hainbat jolasen ondoren, Busti Blai ur-jaiari emango zaio hasiera. Hau dugu haurrei gehien gustatzen zaien jaiak: etxez etxe joatea, balkoi-pean ipini eta ura botatzeko eskatzea.

Beraz, badakizue, animatzen zaren guzti-guztiak zaudete haurren herri-bazkaria gonbidatuta. 9-12 urte tartean baldin bazaude, animatu zaitez!

Sorgin-Dantza

Aurten ere Sorgin-Dantzaren desfilea festetako lehenengo egunean izango da, ekainaren 26an, larunbatean hain zuzen ere. Ekitaldia arratsaldeko 17:30ean hasiko da Oria auzoan. Bertan dantzatu eta gero, desfilea 18:00ak aldea abiatuko da erdigunerantz.

Bidean zehar ere zenbait lekutan dantzatzeko dute: Orian bertan, Biyak Bat zaharren egoitzaren aurrean, Sorgin-Jaien gunearen ondoan eta azkeneko Udaletxearen parean. Aurten lehenengo aldiz, haurren zortzikotea aterako da. Eta zortzikote berri honetako bi dantzari irakurriko dute pregoia azken dantza hasi aurretik.

Zikiro afaria

Sorgin-Dantzaren ekitaldia amaitu ostean, urteroko herri-afaria, hau da, zikiro afaria izango da Sorgin Jaien gunean (frontoi berriko pareko aparkalekuan) iluntzeko 21:00etan. Aurreko urtean 200 pertsona inguru bildu ginen zikiroa jatera, eta aurtengorako ere beste horrenbeste izatea espero dugu. Nahi duzuen guztiok txartelak salgai izango dituzue Jalgin eta Ttakunen 20 euroen truke. Festa giro euskaldun eta alai

MUGICA & ABURRUZA aseguru artekaritza, S. L.			IGARO SAN PEDRO JAI ALAIK!
*IBILGAILUAK - MOTOZIKLETAK - AUTOMOBILAK - AUTOKARABANAK - FURGONETAK - KAMIOIAK... *MERKATARITZA	*BIZITZA ETA ERRETIROAK *OSASUNA *ISTRIPUAK ETA GAIXOTASUNAK *ERANTZUKIZUN ZIBILA	*ETXEBIZITZA ETA KOMUNITATEAK *INBERTSIOAK *PYMEAK...	AUTOESKOLA MUGICA
Ganbo Kalea LASARTE-ORIA Tel.: 943 363449 & Faxe: 943 372413			Ganbo kalea 1, LASARTE-ORIA Tel.: 943 362275 & Faxe: 943 372413



batean afaldu ondoren, afa-
loste girotua izango da Laiotz
taldearen eskutik, hankak
pittin bat arinduz festei hasie-
ra ona emango zaie.

Sagardo dastatzea

San Pedro egunean, berriz,
sagardo dastatzea izango da.
Ekitaldi hau iaz bezala Villa
Mirentxuko atzealdean egin-

go da, trinketeko frontoiaren
ondoan. Arratsaldeko
18:00etan hasi eta 20:00ak
bitarte luzatuko da. Herriko
sei baserrietako sagardoa
eskainiko da probatzeko:
Sollanekoa, Buenabistakoa,
Tellerikoa, Zubillagakoa,
Larrekoa eta Zaltzatekoa. San
Pedro egunean etxean gera-
tzeko aitzakiarik ez da, beraz,



Zikiroaren ostean, Laiotz taldearekin dantza egiteko aukera bikaina izango da.



Sagardoa eta Sardina dastatzea igandean Amalur trikitilari taldeak girotuta. Ez galdu aukera!

aurtengoan ere.

Gainera, sagardoarekin
batera Aterpea elkarteko
kideek sardinak erreko dituzte
eta Amalur taldeko trikitila-
riak izango dira gurekin bate-
ra giroa alaitzeko asmoarekin
eta bertara hurbiltzen direnak
dantzan jartzeko gogoarekin.

Bertso-saioa

Urtero egiten den San Pedro-
tako bertso-saioa izango da
herriko patroia egunean.

San Pedro jaiak 2010 egi-
tarauaren barnean eta San
Pedro egunean, ekainaren

29an, izango da bertso-saioa
kulturetxeko auditorioan
gaueko 22:30etik aurrera.
Sarrera 5 eurotakoa izango da
eta aurrez hartzea komeni da.
Ekitaldiaren antolatzailea Tta-
kun Kultur Elkarteko Bertso-
Eskola izango da urtero
moduan, helburu jakinarekin,
herriko jaietan ere bertsozale-
tasuna zabaltzeko asmoak
bultzatzen du bertso eskola
saioa antolatzera.

Aurreko urteetan bezala
aurten ere sei bertsolari izan-
go dira kantuan: Andoni
Egaña, Maialen Lujanbio,

Patxi Etxeberria, Jon Maia,
Ane Labaka eta Amaia Agirre.
Gaiak jartzen berriz, Unai
Muñoa arituko da.

Esan beharrik ez dago goi-
mailako bertsolariak izango
direla kulturetxeko oholtza
gainean, ez dute, beraz, aur-
kezpen handirik behar.

Musika Jalgin

Jaiak girotzen hasteko, kon-
tzentua izango da Jalgi kafe-
antzokian ekainaren 25ean,
ostiralean. Oreindik eta Lau-
roba taldeek joko dute
23:00etatik aurrera. •

Ondo pasa San Pedrotan

Ttakun Kultur Elkartek,
berri ere, San Pedro jaietarako
ekitaldi ugari antolatu ditu.
Guztiek izaten dute arrakasta
handia, eta aurten ere horrela
izatea espero da. Prestaketa
lanak aurreratuta daude, eta
eguraldiak laguntzen badu,
guztiok hauetako edozein
ekitalditan primeran pasatzeko
aukera izango dugu.



Jaietara amaiera ederra emateko, ekainaren 29an kulturetxean bertso saioa izango da.

AZKEN MUGA TABERNA

**GIRO PAREGABEA GURE TERRAZAN
PINTXOAK
RAZIOAK**

**Beko bidea 2 beheak • 20160 Lasarte-Oria
Tel.: 943 115808**

IREKI BERRIA!

ONDO PASA SAN PEDRO JAIETAN!

San Pedro eliza ondoan, udaletxe aurrean





Herritar bat

Herriatik kanpo lan egiten dutenek oso ondo hartuko zuten Udaletik hartutako erabaki hau, horrela jaiez disfrutatu ahal izango baitute. Ondo iruditzen zait asteburuan izateak, denbora libre edukitzeen duen langile gehiago dagoe-lako.

Umeak ikastola amaitu dute jada herriko jaietan, baina askotan gurasoak eurekin disfrutatze astirik ez genuen, lanera joan beharra genuelako. Asteburuan izanik gurasoak eta umeak herriko jaietan elkarrekin ondo pasatzeko aukera izango dugu. •



Asier, Amparo eta Iraide

San Pedroko jaiak asteburura pasatu izana erabaki ona iruditzen zaigu. Jaiak asteburuan ospatzeak, astean zehar izatea baino hobe guztiontzat. Urte batzuetan jaiak astelehen-ostegun bitartean ospatu dira, eta ez zuten astebururik hartzen, beraz herriatik kanpo lan egiten zutenek ezin zituzten euren herriko jaiez disfrutatu. Erabaki honekin herritarrak eta kanpokoak, denak disfrutatu dezakegu elkarrekin. Beraz, proposamen ona eta zentzuduneko iruditzen zaigu. Asteburuan ospatzeak guztientzako onurak ekarriko ditu. •



Oliva eta Puri

Erabaki ona iruditzen zaigu Udaletik hartutakoa. Gainera, gure ustez asteburuan ospatzearen erabakia lehenago hartu beharreko neurria behar zuen. Bestela herriatik kanpo lan egiten zuenak ezin zuen jaiez disfrutatu, eta herritar guztiei gustatzen zaigu jai giroaz disfrutatu ahal izatea. Eta are gehiago, ostiralean hasia eskatuko genioke Udalari hurrengo urterako, egun bat gehiago, disfrutatze aukera gehiago. Guk uste ez dela inor erabaki honen kontran azalduko, herritar guztiei egiten digu mesede. Asteburuan denbora libre gehiago baitugu. •

Kalean galdezka

Zer iruditzen zaizu San Pedroko jaien egutegi aldaketa??



Laura

Gaszteentzako, data garrantzitsua dira San Pedroak. Nire kasuan gainera, San Pedro egunean nire amaren urtebetetze da, egun berezia eta inportantea.

Jaiak oso noizbehinkan izaten dira asteburuan, eta hori garrantzitsua da, parrandaz eta egitarauan prestatutakoaz disfrutatze aukera izateko. Lasarte-Orian badago jende asko herrian bertan lan egiten ez duena, eta hauen-azko asteburuan ospatzeak, disfrutatze aukera eskaintzen die. Beste moduan, bestela...

Ados nago beraz jaien egitaraua asteburura pasa izanarekin, baina beti ere San Pedro eguna errespetatu dute-lako. San Pedro eguna sakratua da nire familian. •



Olano

Ondo iruditzen zait. San Pedro eguna jai izango da, eta gero aurreko asteburua hatuko du. Hiru egunekin nahiko da jaiez disfrutatze.

Tabernarientzako ere ondo, jende gehiago hurbilduko baita. Nik uste jende gazteak ere ondo hartuko duela. Asteburua jai da. San Pedro eguna kenduko balute orduan ez, baina San Pedro jai izanik, ondo.

Gaszteentz eta guretzako ere. Astearte, asteazkena, osteguna jai izatea baino, hobe asteburua. •



Maite

Egia esan berdin zait, baina suposatzen dut jende gazteak nahiagoko dituela egun gehiago izatea parrandan aritzeko. Baina aurten egun bat kentzen badute, hurrengo urtean egun bat gehitu eta denok kontent.

Hala ere, jaiak onak baldin badira nahiz guztia asteburuan bateratua egon, onak baldin badira hobeto. Askotan egun asko izaten dira, baina mamirik gabeko gauzeekin.

Aurten horrela artuko dugu. •



Luis eta Kari

Oso ondo iruditzen zaigu asteburuko egunekin bat etortzea jaien programa. Izan ere, egun hauek izaten baitira herritarrak aisirako denbora libre ditugun egunak.

Lasarte-Oriatar guztiak ez dugu bertan lan egiten, eta zu lanera joan behar izatea eta bitartean herrian jaiak ospatzen egotea ez da batere atsegingarria. Asteburuan izanik, jende gehienak libre izango du, eta disfrutatze aukera. •



Incomán

ONDO PASA HERRIKO JAIETAN!



☛ Ikerlanak, elektrizitatea aurrezteko moduez.

☛ MIC transpalak.

☛ MIC metagarriak.



Antxota kalea 2 • Tel.: 943 373198 / 943 373153 • Faxa: 943 365935 • LASARTE-ORIA

Riojanos

Erreategia



Uistin kalea 13 • Tel.: 943 362720
LASARTE-ORIA



JAI ALAIK
OPA DIZKIZUEGU!



M^L
MARIA LUISA

ONDO IGARO
HERRIKO JAIETAN!

ILEAPAINDEGI
MIXTOA

Pablo Mutiozabal 9 behea
Tel.: 943 370980



ISU

ONDO IGARO
SAN PEDRO JAIETAN!



- POLIURETANOAK
- PVC
- ALUMINIOA
- ZUBI TERMIKOAREN HAUSDURA

- ATE-LEIHOAK
- PERTSIANAK
- TOLDOAK
- DEKORAZIOA



Kale Nagusia 46 • Tel.: 943 366495 • Faxa: 943 365222

MAIDER

Taberna-Jatetxea

- Asteburuko menu bereziak
- Eguneko menuak
- Gaueko menuak
- Kartako zerbitzua
- Pintxoak
- Bokatak
- Razioak
- Plater konbinatuak

OSO ONDO PASA!



Hipodromo etorbidea 7 • Tel.: 943 362700 • LASARTE-ORIA



MAITE

ESTETIKAKO ARETOA

Foto depilazioa argi pultsatuekin

- Era guztietako depilazioak
- Aurpegiko tratamenduak
- Gorputzeko tratamenduak
- Makillajeak
- Beste hainbat zerbitzu



ONDO PASA
SAN PEDROTAN!



Uistin Kalea z/g • Tel.: 943 370845 • Lasarte-Oria

ONDO IBILI JAIETAN!

Etorri gure jaki
goxoak
probatzera



TABERNA-KAFETEGIA

Ola kalea 2 • Lasarte-Oria • Tel.: 943 362768

MANOLI
estankoa

SAN PEDRO JAI ZORIONTSUAK
OPA DIZKIZUEGU!



Geltoki 15 • Tel.: 943 362492 • LASARTE-ORIA



Kale Nagusia 40 • Tel.: 943 363964 • LASARTE-ORIA


ALTZARIAK
ONAK ETA MERKEAK

IZAN HERRIKO SAN PEDRO
JAI ZORIONTSUAK!

IZARI-BI

Oria etorbidea 3
Brunet polig., 42. pab.
Tel./faxes: 943 360496
LASARTE-ORIA

Garmendia
OIHALAK



ONDO PASA
SAN PEDROTAN!

Uistin kalea 11
Tel.: 943 376947
20160 LASARTE-ORIA





Aldaketak nagusi San Pedro jaietan

Iritsi dira San Pedro jaiak. Aldaketen urtea da oraingoa, ohiturak aldatzeko urtea. Izan ere, 2010eko jaiak, bihar, ekainaren 26an txupinarekin hasi eta San Pedro egunean, asteartean, bukatuko dira zezen suzkoarekin.

Baina hori ez da aldaketa bakarra, San Pedro egun bezperan egiten ziren danborrada, sorgin dantza eta zikiro afaria, besteak beste, larunbatean egingo dira, lehen bezala festetako lehen egunean, eta umeen eguneko haur danborrada, igande eguerdian. Bestetik, azken bi urtetan, jaietara amaiera eman dien Maketa Lehiaketako kontzertua, asteartean arratsaldeko 20:00etan izango da.

Herriko elkarteek, zein Udalak antolatuta, adin guztietarako milaka ekintza egongo dira lau egun haue-tan zehar. Haurrentzako parkeak, herri kirolak, txu-txu trenak, dantzakiak Isla plazan, gazteen kontzertuak Andatza plazan... Aurten, gainera, Lasarte-Oriako kaleetan zehar jai giroa zabaltzeko Udalak kaleko ekin-tza ugari antolatu ditu, esate baterako, kale antzerkiak, mariatxien kalejira edo Oriako txaranga.

Honetaz gain, ohikoa den moduan, Sendoki elkarteak eta Udalak egiten duten omenaldia ospatuko da San Pedro egunean. Omenduak, 1671an, gure herrira iritsi zen erlijio ordenako kideak dira, Brigitar mojak.



Bideo Lagunak

**BEGIRATU
GURE ESKAINTZAK!**

**SAN PEDRO JAI ZORIONTSUAK
OPA DIZKIZUEGU!**

Donostia Etorbidea 2 • Lasarte-Oria • Tel.: 943 373134
jose@bideolagunak.com • www.bideolagunak.com

**Betiko zerbitzua
gure
aholkularitza
onenarekin**



Ostirala 25

16:00etan

Kurtso amaierako merendola, Emakumeen Zentro Zibikoan

18:00etan

Mahai eta mugimendu jokoe-tako saribanaketa, jubilatuen elkartean

18:00etan

Saxeofoi kontzertua, Emakumeen Zentro Zibikoan

22:00etan

Erketz taldearen ekitaldia, Manuel Lekuona kultur etxean.

Larunbata 26

10:00 - 13:00

Kuadrillen arteko Futbol Txapelketaren finalak, Michelin go kirol gunean

10:00 - 13:00

San Pedroko tenisako torneoaren finalak, Michelingo kirol gunean

10:30ean

XXVII. Mosso memorialaren finala, ISU Leihoak-Izkiña taberna, Kiroldegian

11:00etan

Kantujira, herriko kaleetan barrena

11:30 - 14:00

Kalejira Oriako Txarangarekin

12:00etan

Jaiei hasiera emateko, txupinazoa botako da Udaletxetik, eta Erraldoi eta Buruhandien Konpartsa abiatuko da, Oriako Txaranga lagun duela

12:10ean

Camping Renove kaleko ikuskizuna, Trapu Zaharrak konpainiaren eskutik, Elizatze Plazan, Udalaren aurrean



16:00etan

Calvako txapelketa, Atsoba-karko zelaian

16:00etan

Haurrentzako parkea, Isla Plazan

17:00etan

Zezen-ikuskizuna, Atsoba-karren jarritako zezen-eskortan

17:30ean

Oriako Sorgin-Dantza abiatuko da Oriatik, eta Kale Nagusian amaituko da pregoiarekin

19:00etan

Biyak Bat elkarteko abesbatzaren kontzertua, Brigitata-rreren komentuan

20:00etan

Moon Space Lunatics kaleko ikuskizuna abiatuko da udale-txetik

21:00etan

Zikiro-afaria, txosnetan

Ondoren,

Laiotz taldearen emanaldia, txosnetan

23:00etan

Beteranoen danborrada tradizio-nala, Oriako Txaranga eta Eibarko Gastadoreak lagun dituztela, herriko kaleetan barrena

00:00etan

Dantzakiak Nexo orkestrare-kin, Isla Plazan

01:00etan

OBKren kontzertua, Andatza Plazan

Igandea 27

07:00etan

Bigantxak, Saka ganadue-txearenak, Atsokar auzoan instalatutako zezentokian

09:30ean

Haurrentzako txirrinda laster-



**SAN PEDRO JAI ZORIONTSUAK
OPA DIZKIZUEGU!**

• EUSKAL HERRIKO SUKALDARITZA

• JANGELA EGOKI-EGOKIAK,
EZKONTZAK, JAUNARTZEAK
ETA BESTE EDOZER OSPATZEKO

• ETXeko ESPEZIALITATEA:
PARRILAKO ARRAINA
ETA HARAGIA.

DANA ONA

JATETXEA

restaurante@danaona.com
ZUBIETA (Hipodromoaren ondoan)
Tel.: 943 365347 / 943 361731 • Faxa: 943 366020





keta, Atsobakarreko Ziklo kros pistan

10:00 - 11:30

Iturberen Omenezko Bola eta Tokako XXI. Txapelketa, Michelingo kirol gunean

11:30etan

Haurren Danborrada Tradizionala, Oriako Txaranga lagun duela, herriko kaleetan barrena ibiliko da

13:30etan

Zo Zongo musikazko ikuskizuna herriko kaleetan barrena ibiliko da

16:30 - 17:30

Iturberen Omenezko Bola eta Tokako XXI. Txapelketa, Michelingo kirol gunean

16:30etan

Paintball, Atsobakarko parkean. Adrenalina hustu nahi duten 14 urtetik gorakoentzat

16:30 - 20:30

Puzgarriak, Isla Plazan

17:00etan

Goitibeherak, Zabaletako aldapan

17:00etan

Erraldoiak eta Buruhandiak, Oriako Txaranga lagun dutela, herriko kaleetan zehar ibiliko dira

18:00etan

Erlojupeko igoera, txosna gunetik Zabaletaraino

19:00etan

Kalejira, Viva México gazte-mariatxiarekin

20:00etan

Viva México gazte-mariatxia, Andatza Plazan

20:30etan

Entre Mujeres antzezlan Lan eta Lan taldearen eskutik, Manuel Lekuona kultur etxean



22:00etan

Herriko taldeen kontzertua, Andatza Plazan:

Flashback
Zephyr
Desaster 92

23:00etan

Dantzakiak Isla Plazan, La Fania orkestraren eskutik

Astelehena 28

11:00 - 13:00

Haurren Bola eta Tokako Botaldia, Michelingo kirol gunean

11:00etan

Eskuzko pilotako txapelketa-ren finalak, Benjaminen, A eta B Alebinen eta Infantilen kategorietan, trinketean

11:30 - 13:30

Haurrentzako parke bikaina, Andatza Plazan

11:30 - 13:30

Txu-txu trenak Donostia Etorbideko autobusgeralekutik abiatu eta herrian barrena ibiliko da

11:30etan

Erraldoiak eta Buruhandiak, Oriako Txaranga lagun dutela, herriko kaleetatik ibiliko da

13:30etan

Haurren kalejira, Ola Kaletik abiatuta, Atsobakarreraino Oriako Txaranga lagun dutela

14:00etan

Haurren herri-bazkaria, Atsobakarko parkean

15:00etan


Uretako jolasak, Atsobakarren

16:00etan

Busti Blai, Atsobakarreko plazetan

17:00etan

Zaldi-ikuskizuna, Atsobakarko zelaian



SUGATE SUKALDEAK

- Gremioen koordinazioa
- Ordenadore bidezko diseinua
- Konpromisorik gabeko aurrekontuak
- Horma- armairuak
- Marka guztietako etxetresna elektrikoak

OSO ONDO PASA
SAN PEDRO JALETANI



Pintore Kalea 5 • Tel./Faxa: 943 361471
Lasarte-Oria
www.sugate.net



20:00etan
Javier Segarra umorista,
Manuel Lekuona kultur etxean

23:00etan
Abiba Disco Jaiak, Andatza Plazan

23:00etan
Dantzakiak Nuevo Talisman orkestraren eskutik, Isla Plazan

Asteartea 29 San Pedro eguna

07:00etan
Bigantxak, Saka ganadu-
etxearenak, Atsobakar auzoan
instalaturako zezen-eskorian

10:30etan
Diana, Oriako Txarangarekin

11:00etan
Meza nagusia, San Pedro
parrokian

11:30etan
Eskuzko pilota-partidak, jube-
nilen eta 1. mailako seniorren
kategorietan, trinketeen



11:30etan
Erraldoi eta Buruhandien K
onpartsa, Oriako Txaranga
lagun dutela

11:30 - 13:30
Haurrentzako parkea, Isla Pla-
zan. Emozioak gogoko baditu-
zue, zatozte gurekin jolastera

12:15etan
Brigitar Mojei omenaldia ,
Udaletxeko Batzar-Aretoa

12:30etan
Herri-kirolak, Elizatze Plazan,
Udalaren aurrean. Bi aizkola-
riren arteko norgehiagoka,
trontzako probak, egurreko-
ak... ikusi ahaliko ditugu

16:30 - 19:30
Haurrentzako parkea, Isla Pla-
zan

17:00etan
Haurrentzako bigantxak,
Atsobakar auzoan instalaturako
zezen-eskorian, Oriako
Txaranga lagun dutela

18:00etan
Sagardo-dastatzea, Villa
Mirentxuko parkean

18:00etan
Sardina-jatea, Villa Mirentxu-
ko parkean

18:30etan
Amalur trikiti eta pandero
eskolako emanaldia, Villa
Mirentxun

20:00etan
Lasarte-Oriako Maketen III.
Lehiaketako irabazleen kon-
tzentua, Isla Plazan:
The Bucket Beans in

Tomato Sauce Brothers,
Madrilgo taldea
Arramazka taldea, Lasarte-
Oria Sariaren irabazlea

22:30etan
Berto saioa, Manuel Lekuona
kultur etxean, parte-hartzaileak:

Andoni Egaña
Maialen Lujanbio
Patxi Etxeberria
Jon Maia
Ane Labaka
Amaia Agirre

Gai-jartzailea: Unai Muñoa

23:00etan
Su artifizialen bilduma botako
du Zaragozana Piroteknia
famatuak, Atsobakarko parketik

Segidan
Dantzakiak eta ikuskizuna
Andatza plazan, Fabulosa
orkestraren eskutik.

00:00etan
Zezen Suzkoaren entzierroa,
Kale Nagusian

Jarraian
Mania Percutoria ikuskizuna,
Udaletxetik aterata



Oharrak

Aldez aurreko salmenta,
ekainaren 21etik aurrera,
18:00etatik 21:00etara
bitartean, Manuel Lekuona
kultur etxean:

- Bertsolariak 5 euro
- Javier Segarra 5 euro
- Entre Mujeres (Lan eta Lan) 5 euro

Gomendioak:

- 1.- Udalak beretzat erreserbatzen du programaturako ekitaldiren bat ezinbesteko kausengatik aldatzeko, kentzeko edo bertan behera uzteko eskubidea.
- 2.- Pertsona guztiei arren eskatzen zaie kasu egin diezaietela Udaleko enplegatuengandik edo agintaritzako agenteengandik jaso ditzaketen agindu partikularrei, eta, bestalde, ez ditzatela

oztopa DYaren lanak, festetan interbenitu beharrean gertatuz gero.

- 3.- Parte hartu, ondo pasatu, baina kontuan izan besteenganako errespetua.
- 4.- Errespetatu kaleko altzariak, lorategiak, kaleplazak, etab., lasarteoriatar guztion eta zerorren onerako.
- 5.- Ez oztopatu ez garbiketako lanak, ez zerbitzu munizipalenak; kontuan izan zenbaitek lan egingo dutela, gainerakook festetan ondo pasa dezagun.
- 6.- Debekatuta dago petardoak, suziariak edo antzekoak saltzea.
- 7.- Gogorazten da debekatuta dagoela 18 urtetik beherakoei alkohola saltzea.
- 8.- Edaten baduzu, ez ezazu gidatu.

tsst

Gure herriko autobusekin,
Ospitaleetara
ere bai!



OSO ONDO IGARO HERRIKO JAIETAN!

autobusen
TST
zerbitzua

Azkarra, segurua eta erosoa
Tel.: 943 361740
www.tsst.info



Lau egunetako egitarau oparoa Sorgin Jaien eskutik

Egitarau zabala eta oparoa antolatu dute Sorgin Jaien gunean Lasarte-Oriako herritarrek gozatu eta sanpedrotan ondo pasa dezaten. Denetarik dago, larunbatean hilaren 26an hasi eta astearte gauera arte. Gauza berriak ere bai. Lehenengo eta behin, festak gogoz eta indartsu hasteko, koadrilen jaitsiera antolatu dute, eta herritar guztiak gonbidatu. Bakoitzak bere erara, kalejiran egingo dute umore onez Andatza eta Sorgin Jaien Gunearen arteko bidea. Kiroldegi ondoko frontoiaren parean jarriko da aurtien Sorgin Jaien gunea eta bertan burutuko dira egitarau honetako ekitaldiak. Larunbatean, kalejiraren ondoren 13:30ean irakurriko dute jaietako pregoia eta jaurtiko dute txupina aurtengo pregoilariak 36ko gerrako biktimen senideek.



Igandea 27

Ahaztuak

06:00

Txokolatada, eguna indartsu hasteko.

12:30

Entsalada txapelketa eta sagardo dastatzea. Edozeinek hartu dezake parte, bakoitzak erabili nahi dituen osagaiak eramango ditu eta antolatzaileek suak jarriko dituzte behar izanez gero erabiltzeko. Txapelketan parte hartuko dutenek euren entsaladak prestatzen dituzten bitartean sagardoa eskainiko da dastatzeko.

17:00

Goitibeherak

18:00

Kronoeskalada. 18 urtetik beherakoen kategoria, neskak eta mutilak. Bakoitzarentzat saria

18:30

Antzerki eta dantza ikusizuna

19:00

Erromeria, Hitzartu eta Trikihots-en eskutik.

23:00

Kontzertuak:
Danba
Emon

Larunbata 26

Kuadrillen eguna

11:30

Kuadrillen jaitsiera

13:30

Txupinazoa

14:30

Bazkaria

16:30

Olinpiadak (kalejira, aurkezpena,...)

18:30

Euskal dantza saioa: Gabiriko gazteak

21:00

Ziklo afaria

22:30

Laiotz

01:00

Hondarribiko taldea



DAKARA JATETXEA

Especialitatea hostopiletan
Erraxioak

Eguneko menua
asteartetik ostiralera

Ez geratu ostegunetako gure nazioarteko afariak probatu gabe !!

Entsaladak

Ogitartekoak



Kale Nagusia 8 behe • Lasarte-Oria 20160 • Tel.: 943 575859





Larunbateko koadrilen jaitsiera da berrikuntza nagusia

Jaien hasierari garrantzia eman nahi diote Sorgin Jaien antolatzaileek eta aurtun lehen aldiz koadrilen jaitsierarekin hasiko dituzte sanpedroak. Jaien lehen egunean goizetik herria kalera ateratzeko deia luzatu dute Sorgin jaietakoek.

Kalejira Andatza plazatik abiatuko da goizeko 11:30ean eta Sorgin Gunean, Kiroldegi-ko frontoi ondoan amaituko da. 13:30ean, botako dute 36ko gerrako biktimen senideek txupina eta ondoren aurtengo pregoia irakurriko dute.

Bazkari herrikoia, gutxi gora-behera 14:00etan, hasiko da Sorgin Jaien gunean eta ondoren egingo dira herrien arteko olinpiadak. Gabiri, Lizarra, Añorga, Zabaleta eta Lasarte-Oriako taldeek hartuko dute parte Olinpiada herrikoia hauetan.

Lizarra eta Gabiri

Aurtengo Sorgin Jaiak batzordeak gonbidatu dituen herriak Lizarra eta Gabiria izango dira. Iaz Bizkaitarrak gonbidatu zituzten, Abadiñokoak eta aurtun Gipuzkoa eta Nafarroako txanda izan da. Olinpiadetan parte hartzearekin batera, Gabiriko gazteek euskal dantzak eskainiko dituzte larunbat arratsaldean.

Umeentzat urtero bezala, ekitaldi nagusia Pirritx, Porrotx eta Marimotx-en emanaldia izango da eta aurtengo berrikuntza, haurren danborrada.

Baltsen Oriako jaitsiera, goitibehera jaitsiera eta Zabale-tara krono igoera ere burutuko dira, urtero bezala. Aurtun Sorgin Jaien gunetik abiatuko da txirindulari proba, eta berrikuntza, hiru mailatan banatu dutela. Aurtun sariak izango dira 18 urtetik beherako eta emakumezko onenentzat ere.

Sorgin Jaien gunean ez da jarrera sexistarik edo xenofoborik onartuko, iaz martxan jarri zen protokoloa mantenduko da eta erasoan aurrean, neurriak hartuko dira. •

Astelehena 28

Umeen eguna

6:00
Txokolatada

11:00
Pirritx, Porrotx eta Marimotx-en emanaldia

17:00
Oriako jaitsiera

18:30
Lokal poteoa

18:30
Umeen danborrada

19:30
Bertsolariak

20:30
DZ karpan

22:30
Sorkun eta bere taldearen kontzertua karpan

00:00etatik aurrera
Karaokea

Ondoren
musika girotua



Asteartea 29

Greba eguna

Sorgin Jaiak gehiengo sindikalak deituriko greba deialdiarekin bat egiten du, eta langilegoari kalera ateratzeko deia luzatu.

15:00
Txosna irekiera

16:00
Lanpostuaren bila (altxorren bila)

18:00
Gehiengo sindikalak antolatutako manifa. Txosnak 19:00 bitartean itxita egongo dira

19:00
Mus txapelketa

23:00
Bertsio gaua



Festetan etorri gurekin gosaltzera!

SAN PEDRO JAI ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUEGU!



Hipodromo etorbidea 3
Lasarte-Oria
Tel.: 943 366176
labegoxo@euskalnet.net





Trikihots taldeko kideek igandean hilaren 27an joko dute Sorgin Jaiei Guneako erromerian arratsaldeko 20:00etatik aurrera.

Sorgin abesti berria estreinatuko da

Lasarte-Oriako Trikihots taldeak jarri die musika Ane Labakaren hitzei Doinu eta letra alaia sortu dute Sorgin Jai alai batzuei dagokion moduan

Sorgin Jaiei antolatzaileek erabaki dute aurten jaietarako abesti berri bat sortzea, aurrekoa, duela zortzi urtekoa zela, kontuan izanik. Trikihots-i eskatu eta herriko talde honek jarri dio musika Ane Labaka bertso-lariak idatzitako letrei. "Sasi guztien gainetik eta laino guztien azpitik" festa egiteko gomendioa luzatzen du abestiak, "aupa mutil eta neska, gauza hoberik ezta".

Kanta alaia egin du Trikihots Lasarte-Oriako laukoteak, Sorgin Jaiekin kantatu eta dantzatzeko.

Igandean, ekainaren 27an Hitzartu eta Trikihots taldeekin erromeria izango da Sorgin Jaiei gunean arratsaldeko

20:00etan hasita, eta orduan, eskainiko du Trikihots taldeak abestia zuzen zuzenean.

Dena den, bestela ere izango da San Pedro jaietan txosna eta tabernetan Trikihots taldearen doinu alaia-ekin dantzatzeko aukera. •

Trikihots Lasarte-Oriako musika taldeak egin du Sorgin Jaiei abesti berriaren musika eta Ane Labakarenak dira hitzak:

Edabe majikoaren usaia
piztu dizkigu juergarako nahiak
gaindituz inkisizio garaiak
goza ditzagun Sorgin Jaia.

Izan nahi nuke sorgina, azitia
ilargipean bihurtuz piztia
dantzan igarotzeko gau guztia
atera arte eguzkia.

Sasi denen gainetik
ta lainoen azpitik
herriarentzat herritik
aupa mutil ta neska
gauza hoberik ezta
beraz has dadila festa!

Akelarrean triste zabilta zu
norbaiten falta sumatzen al duzu?
barroteei eman behar diegu su
ez daudenentzat mila musu.

Eguzkilorez jantzi da Lasarte
ez egon txosna gunetik aparte
eta hara hurbiltzen bazerate
ezetz joan bukatu arte!

Sasi denen gainetik
ta lainoen azpitik
herriarentzat herritik
aupa mutil ta neska
gauza hoberik ezta
beraz has dadila festa!!

xule
FISIOTERAPIA ZENTROA

**FISIOTERAPIA OROKORRA
ETA MASAIK**

Akupuntura

David Egizabal 635 700286
(hitzordua aurretik)

Juan XXIII plaza • Lasarte-Oria • 822 elkargokide zk.

IGARO ONGI
SAN PEDRO
JAIK!

**MONTSE
ILEAPAINDEGIA**

**ONDO PASA
SAN PEDRO JAIK!**

Juan XXIII enparantza • Lasarte-Oria
Tel.: 943 366055

LIBRERIA MAITE

**OSO ONDO
PASA!**

Itoki 1
943 3727
LASARTE-ORIA

Jaiak ordu beteko greba egingo du

Greba egiteko deia luzatu duten sindikatuek eragozpenik ez dute sortu nahi San Pedro egunean ordu betez ixteko proposatu diete tabernari eta dendariei

Ekainaren 29an Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroan, Greba Orokorra egiteko deia zabaldu dute ELA, LAB, ESK, STEE/EILAS, Hiru eta EHNE sindikatuek, baina sindikatu hauek ez dute jaietan den Lasarte-Oriako herrian eragozpenik edo okerrrik eragin nahi eta herritarrek festatan jai egun nagusiaz gozatzeko aukera izan dezaten, dendari eta tabernariei proposatu diete ordu betez ixteko arratsaldeko 18:00etatik 19:00etara bitartean. Hain juxtu 18:00etan Sorgin Jaien gunetik manifestazioa aterako da Madrileko Gobernuak burutu nahi duen lan erreforma berria salatzen.

TXINTXARRI

Langilieriarentzat murrizketak ekarriko dituen Jose Luis Rodriguez Zapateroren lan erreforma berria bertan behera uzteko eskatuz ekainaren 29an Hego Euskal Herrian greba orokorra egiteko deia luzatu du euskal gehiengo sindikalak, ELA, LAB, ESK, STEE-EILAS, Hiru eta EHNE sindikatuek, alegia eta CNTk ere bat egin du deialdiarekin. Dena den, sindikatuek kontutuan izan dute Lasarte-Oria festatan dela, eta grebak San Pedro Egunean eragingo lituzkeen ondorio eta eragozpenak saihesteko deialdia aldatu eta ordu betez gelditzea proposatu diete dendari eta tabernariei.

Sindikatuak, "Jaietan ere elkartasuna eta salaketa" izenburuarekin argitaratu duten oharrean adierazten dute, greba deitu duten sindikatuek jaietako egun nagusian honek izan ditzakeen eraginak saihestu nahi dituztela. Sindikatu hauek argi dute langileen

galerak ostalari eta merkatarik ordaintzen ari direla eta beraz, "ez litzateke zuzena ostalaritza eta merkataritza kaltetzea aipatu egunetan".

Ordu beteko greba

Horregatik diote, "ostalaritza eta merkataritzak bizi duen egoera zailaz jakitun eta Lasarte-Oriako jaietako egun handian gehiegizko kaltea saihestearren gonbidatzen zaitugu zure elkartasuna eta salaketa adieraztera ekainaren 29ko greban zure establezimendua ordu bete itxiz, 18:00etatik 19:00ak arte". Beraz Sorgin Jaien gunetik arratsaldeko 18:00etan abiatuko den manifestazioak irauten duen bitartean ixteko eskatu dute sindikatuek soilik.

Sindikatuak argi dute, onartzen ari diren eta laster indarrean izango diren neurriek gizartearen eta lan baldintzetan murrizketak ekarriko dituztela eta sektore orori bete betearen eragingo diotela, baita oinarritzko kontsumoari



Sindikatuak onartu egin dute Lasarte-Oria San Pedro egunean denda eta taberneko ordu beteko greba egitea.

ere: denak kaltetuko dituzte eta erosteko ahalmena apalduko da. "Oso garesti ordaintzen ari gara gutxi batzuen diruzalekeria eta horrexegatik eskatzen dizuegu elkartasuna azal dezazuen".

Laguntzarik ez langileari

Diru publikoa banketxeen eman zaien bitartean langileen baldintza kaxkarrak salatzaren dute sindikatuek: "Behartsuenak, langileak, pentsiodunak, merkataritza txikia, ostalaritzako autonomoak... une zailak bizitzen ari dira. Gizartearen gehien-

goa nork bere ahaleginez bizitzeko aurrera ateratzen duen jendeaz osatua dago. Gaur egungo egoeran, milaka pertsonak galdu dute lana, edo bestela, baldintza kaskarragoetan egin behar izango dute lan. Pentsioek eta soldatek behera egin dute, irazpeina merkatu da, lan baldintzek okerrera egin dute, baina, hala ere, BEZak gora egin du, argindarra garestitu da... Espekulatzaileak, bankuek, finantza erakundeek eta klase pribilegiatuek eragin zuten krisia; diru publikoarekin bankuak erreskatatzen eta onbi-

deratzen dira, baina ez langilieriarentzat, ez eta zuretzat ere, ez dago erreskaterik edota laguntza publikorik. Alderantziz, langileria ari da ordaintzen krisialdia" salatu dute sei euskal sindikatuek.

Guzti honengatik eta ostalaritza-merkataritza ere krisiaren eraginak jasaten ari dela kontuan harturik, Lasarte-Oriako egun handian, San Pedro egunean, denda eta tabernak zabalik izango dira arratsaldeko 18:00ak arte eta 19:00etatik aurrera ere bai. Sindikatuek ordu bete ixteko erabakia hartu dute. •

**HITZARTUTAKO
eta
TALDEENTZAKO
MENUAK**

**SAN PEDRO JAI ZORIONTSUAK
OPA DIZKIZUEGU!**

SANCHO TABERNA

**Ogitartekoak
PINTXOAK
Plater konbinatuak
Eguneko menua**

**KAXUELA, PINTXO ETA
MORUNOETAN
ESPEZIALIZATUA**

**Oriamendi enparantza 1 behea · Lasarte-Oria
Tel.: 943 372075**

‘Niretzat Zero Sette akordeoi orkestra bizi erdia da, edo gehiago’

Akordeoa jotzen aitzak bultzatuta hasi zen, gustuko zuela ikusi eta Jose Antonio Mercero sortu-tako Zero Sette orkestran hasi zen. 1989an, Mercero zuzendari lanak uztea erabaki eta Elias Goikouriak hartu zuen bere lekua. Hogei urte pasa dira geroztik, horregatik Eliasekin bildu gara urte hauetako errepaso bat egin eta San Pedro jaiei buruz hitz egiteko.

Jose Antonio Mercero 1987an martxan jarri zuen orkestra eta 1989an, zuzendariak uztea erabaki zuen...

Guk instrumentu guztiak genituen eta denon artean aurrera egitea erabaki genuen.

Norbaitek egin behar zituen zuzendari lanak eta ni jarri nintzen ideia askorik izan gabe.

Nolakoa izan zen hasiera?

Zaila izan zen, oso gogorra niretzat, musika-kultura gutxi nuelako.

Baina ez nuen abestiak lortzeko zailtasunik, Mercero moldatutako abestiak genituelako. Gainera, bere alabarekin harremanetan jarri eta partitura gehiago eman zizkigun, batzuk gerora nire aldateketaren bat izan dutenak.

Beti abesti berak ez jotzeko, errepertorio berri bila hasi genin.

Zuzendari lana, ez da lan makala. Zure kasuan, abestiak moldatu behar dituzu akordeoirako, ezta?

Abesti berria dagoenean, entzun egin behar dut, partiturak aurkitu, moldatu. Loaldiari orduak kentzea da.

Baina zortea dut, horretarako taldeko kidean laguntza dut. Doinuak aukeratzeko eta bertsio egokia aurkitzen

laguntzen didate, gero nik moldaketa egiten dut. Beti ere, jatorrizko doinua eta akordeoi orkestrak duen soinu-ezaugarriak kontuan izanik.

Zein da Zero Setteren arrakastaren sekretua?

Gure arrakastaren %95a astero egiten dugun lana da. Lana ez da kontzertuan egiten, astero egiten da entsegutan. Lan jarraitua da.

Horretarako, egitaraua aurretik prestatu behar da, zenbait hilabetetako aurreikuspenarekin.

Orkestran hasieran guztiak Lasarte-Oriakoak ziren, zein da egungo egoera?

Lehen orkestra herriko jendeak osatzen zuen. Mercero zuen akademiako jendea zen eta akordeoi jole ugari zegoen herrian.

30 partaide baino gehiago izan dira noizbait orkestran, egun hogeit bat gara. Tamalez, gero eta akordeoi ikasle gutxiago dago.

Deba, Elgoibar, Mendara, Andoain, Usturibil, Hernani, Urnieta, Donostia eta herriko jendea dago egun taldean.

Jende berria etorri da eta taldearen alde egin dute.

Oso harro nago horrelako akordeoi taldea zuzentzeaz eta batez ere, akordeoi jole profesionalak ez diren taldea 23 urtez mantendu delako eta kalitatezko lana eginez.

Hala ere, gonbita egiten diet eremuko akordeoi joleei, asteazkeneko entsegutara hurbildu daitezkeen taldea ikustera.

Zure zuzendaritzapean lehiaketa askotan parte hartu du orkestrak...

Lehiaketak bi ahoko ezpata dut. Prest joan behar zara, zein estilotako lehiaketa den



Arg.: J. Zatarain

Hogeit urte egin ditu Elias Goikouriak Lasarte-Oriako Zero Sette akordeoi orkestraren zuzendari bezala.

jakin, derrigorrezko obra dagoen jakin...

Ausartak izan ginen eta zuzendari bezala bi urte neramatzala, Madrilgo Reina Sofiara joan ginen eta guretzat sorpresa ederra izan zen irabaztea.

Horren ostean, hainbat sari lortu ditugu, Torrelavega-ko behin baino gehiagotan, atzerriko zenbait...

Horretaz gain, kontzertu ugari eskaini ditu orkestrak...

Baina bolada txarrak ere izan ditugu. Hainbesteko lana egin eta kontzerturik ez eskaintzea ez da ona taldearentzako.

Aurten, esate baterako, lau eman ditugu eta kontent gaude. Izan ere, 2009an, Lasarte-Oriatik aterako ez ginela pentsatzen baikenuen.

Zortea izan dugu, Zumarragan, Leonen eta Elgoibarraren kontzertuak izan ditugu

“Norbaitek egin behar zituen zuzendari lanak eta ni jarri nintzen ideia askorik izan gabe

eta Alkoholiko Anonimoen jaialdian parte hartu dugu.

Leongo kontzertuan, adibidez, 500 pertsona bildu ziren gu entzuteko eta sarrera ordainduz. Eta horrek ematen du lanean jarraitzeko gogo.

Akordeoi jaialdia martxan jarri zenuten eta errotzen doan jaialdia da, ezta?

Hortaz ere, harro nago. Izan ere, deigarria da, Lasarte-Orian akordeoi jaialdia sortzea.

Udalaren laguntzaz noski. Haien laguntza ekonomikorik gabe ez litzake posible izango. Lan handia da guztia antolatuta eta taldeak ekartzea.

Jaialdia herriarentzat eta akordeoiarentzat publizitatea da. Era honetako jaialdi gutxi dago.

Gure esku balego, jaialdiak urte askoz mantenduko genuke, baina ez dakigu noiz arte egin ahalko den.

Herriko beste elkarteekin lan egiten duen taldea da Zero Sette Orkestra...

Bai, horrela da. Leonen, esate baterako, Amaia Caballeroren dantzariak izan genituen laguntzaile.

Erketz eta Albokarekin batera behin baino gehiagotan lan egin dugu.



InmoGes

Inmobiliaria

HERRIKO JAI ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUEGU!



Kale Nagusia 12-3
Lasarte-Oria
Tel.: 943 376662

JUAN IGNACIO



OSO ONDO PASA SAN PEDROTAN!

ORDUTEGIA
Astelehenetik asteartera
08:30 - 13:30
16:00 - 20:00
Larunbatetan
08:00 - 14:00

Geltoki kalea 19 • Tel.: 635 707544



NEUS

ile-apaindegia



ONDO IGARO HERRIKO JAIALDIAN!

Fabio Mutiozabal 9-1.C
Tel.: 943 361691
LASARTE-ORIA

“ Garrantzitsuena ez da zuzendaria, taldea da eta honekin aurrera jarraitzea

Herrian maiz egin ditugu gauzak elkarrekin, baina badago jendea oraindik ezagutzen ez gaituena. Lehenengo aldia uste dut, Manuel Lekuona kultur etxeko inaugurazioan izan zela, orduan egin zen lehenengoz Eusko Irudiak.

Hogei urte hauetan, milaka bitxikeri izango dituzu gogotan, ezta?

Oroitzen ditudanetik, abenduaren 28 batean, Inuzente egunean gertatutakoa da bat.

Egun horretan bi kontzertu genituen, goizean kultur etxean eta arratsaldean, Artzai Onaren katedralean, ehungarren urterrena ospatzen zelako.

Goizeko kontzertuan, Juantxiren laguntzaz, papezko pampina jarri zidaten bizkarrean.

Orkestra zuzentzera atera eta jendea barrezka hasi zen. Nik ez nion garrantzirik eman.

Lehenengo abestiari hasiera eman eta beste zerbat jotzen hasi ziren. Ni moztan saiatu nintzen, ez nekien zer egin eta bat batean inuzen-

teen doinua jotzen hasi ziren.

Ama atera zen lore-sorta ematera. Gaixoak oso gaizki pasa zuen.

Aurki, Orkestraren 25. urterrena ospatuko duzue. Hasi al dituzue prestaketak?

Batzorde bat dago horretan lanean. Ez dakit zer egingo den zehazki, asmo asko ditugu. Izan ere, 25 urte edozein taldek ez ditu egiten.

Hogei urte bete dituzu. Etor-kizunari begira, beste horrenbeste egingo al dituzu?

Oso zail da hori erantzutea. Baina taldekideek akordeoia jotzen jarraitu nahi dutela erakusten badidate, nik ahal dudana guztia egingo dut taldeak aurrera egiteko.

Garrantzitsuena ez da zuzendaria, garrantzitsuena taldea da eta honekin aurrera jarraitzea.

Niretzat orkestra bizi erdia da, edo gehiago. Momentu batzuetan kezka sortzen zaizkizu, besteetan “ezin dut gehiago” esateko gogoak jartzen zaizkizu, baina badago



Jaietan ahal duen guztian parte hartzen du. Danborradan jotzen du, adibidez.

jendaurrera egitea nahi duena eta nik ere haiekin bat egiten dut momentu horietan.

Azkenean, indarren bateratzea da. Zuzendariak talderik gabe ez du ezer egiten eta taldeak zuzendaririk gabe ere ez. Oreak bilatu behar da eta guztiak alde batera egin.

Orkestrak jarraitu behar

du, abesti berriak prestatzen, gauza berriak egiten...

San Pedro jaietan omenaldian jotzen du orkestrak...

Lehen, kontzertua ere eskaintzen genuen. Egun omenaldian gaude bakarrik.

Urtero, obra berak jotzen ditugu, jendea sartzean kaleji-

ra eta amaieran, Lasarte-Oriako ereserkia.

Horretaz gain, omenduak gustuko duen doinuren bat ere jotzen dugu. Horretarako, omenduaren gertuko norbaiten laguntza dugu.

Jaiekin jarraituaz, San Pedro-etan parte hartzen duzu, ezta?

Ni lasartearra naiz. Beno, egia esan, Donostian nagoenean lasartearra naizela diot eta Lasarte-Orian nagoenean donostiarra.

Helduen danborradako batzordeko kide naiz eta jotzen ateratzen naiz. Danborradako afarian parte hartzen dut. Era honetara, kide guztiak batu eta taldea egiten saiatzen gara.

Horretaz gain, jaietan parte hartzen saiatzen naiz, herritik bueltaxka bat eman, ekintzak ikusi, etab.

San Pedro eguna era modu berezian bizi al duzu?

Bai, etxean egun berezia da. Nik jai hartzen dut eta ahal dudana guztian parte hartzen dut.

Goiz esnatu, omenaldian parte hartu, gurasoen etxean familia guztia bildu eta bazkaria egin.

Egun handia da. Gurasoak ez dira lasarteoriatarrak, baina hori erakutsi digite. •



Nagusia 36, behea 20160 Lasarte-Oria
Tel.: 943 37 04 46



Nagusia 50, behea
Lasarte-Oria
Tel.: 943 36 36 11



OSO ONDO PASA
SAN PEDRO JAIETAN !



HARATEGIA



URDAITEGIA



Geltoki Kalea 15 behea
Lasarte-Oria
Tel.: 943 376585



Arramazka Lasarte-Oriako taldearen diskoa laster izango da kalean

Lasarte-Oria saria eskuratu dute herriko maketa lehiaketan eta herriko festetan musika emanaldia eskainiko digute, hilaren 29an, zehazki arratsaldeko 20:00etan Isla plazan. Donostiako por-rock lehiaketako finalean aritzeko ere sailkatu da herriko taldea

2009an, *Hatortxu Rock* jaialdian *Karratua borobila da bezala* aurkeztu zuten beren burua, baina Aroa eta Aitzol anai-arrebek orduan azaldu ziguten moduan proiektu berri bat zen. Proiektu berri hori, *Arramazka*, aurrera atera eta urte beteko lanaren ostean osatu duten diskoa aurkeztuko dute laster. Beraiekin solasaldia izan dugu eta diskoari eta beste hainbat gairi buruz aritu gara.

NEREA EIZAGIRRE

Mezu bat, bizipen bat, sententzia baten... adieraztea, hori da, *Arramazka* taldeak bere musikaren bitartez egin nahi duena. Aurki kalean izango dute bere lehenengo diskoa.

Zer da Arramazka?

Aitzol- *Arramazka* musikari bezala gure ibilbidearen garapena izan da. *Karratua borobila da* proiektuaren aurrerapauso naturala.

Nolakoa izan zen hasiera?

Aroa- Hasiera oso esperimentala izan zen. *Hatortxu* jo genuenean ez genuen izenik, *Karratua borobila da* izenarekin aurkeztu genuen geure burua.

Musika egiteko eta gozatzeko gogoz ginen, eta horretarako prest zegoen lagun taldea bildu genuelarik, horri ekin genion buru-belarri. Gustura ari gara.

Urte beteko lanaren ostean, diskoa grabatu duzue, ezta?

Ai.- Prozesua bizia izan da, apirilean hasi ginen grabatzen

eta ekainaren erdialdera amaitu dugu, hainbat buruhausteren ondoren; estudioko arduradunari ordenagailua matxuratu zitzaion eta prozesua hilabete atzeratu behar izan genuen, *K estudioa* lruñean dagoelarik, hara joan etorri-ibiltzea...gogor bezain aberasgarria izan da.

Abestiak prest zeuden, eta kide aldaketak izan genituen taldean. Baxu joleari Williri beste talde batekin, *Laiarekin*, jotzeko aukera sortu zitzaion eta baxujole gabe geratu ginen. Musika eskolara deitzeari ekin genion eta Isra, Alegiko baxu jolearekin lanean hasteko aukera sortu zitzaigun.

Pizgarria izan zen taldearentzat. Lanerako gogo handia duen gaztea da, musika gure moduan sentitzen duena, edozer gauza egiteko prest dagoena.

Ar.- Musikalki oso txukuna gainera.

Ai.- Diskoa orain arteko bide guztien bateratzea izan da. Oso gustura grabatu dugu eta irrikaz gaude uztailearen 1ean eskuartearen izateko.



Arramazka taldearen disko berria aurki da kalean. Asteartean, 20:00etan, Isla plazan abestiak entzuteko aukera egongo da.

Nola sortu zen diskoaren ideia?

Ai.- Hasieran, taldearen funtzionamendurako, genituen lau abestiak grabatzea ona izango litzatekeela pentsatu genuen, grabaketa etxera eramanez eta kanta landu ahal izateko.

Ar.- Hainbat tokitara bidaltzeko ere behar genituen. Bartzelonako Euskal Etxean, esate baterako, zer jotzen genuen jakiteko zerba it eskatu ziguten. Gero sortu zen diskoaren ideia.

Ai.- Abesti horiek grabatuak

izaki, jendeari entzuteko eman eta interneteko atarian jarri genituen edonoren eskuragai. Jende asko sartu zen entzutera, erantzuna oso positiboa izan zelarik.

Honen ondoren eta 10 kantutako erreperitorioa sortu genuela ikusita, besteak grabatu eta lan luze moduan aurkezteara erabaki genuen.

Sorkuntza prozesua aipatu duzue, nolakoa da Arramazka taldearena?

Ai.- Letrak normalean Aroaren esku izaten dira. Musika

sorkuntza prozesua, Goiku eta nire artean egiten dugu. Besteen lana hori janztea izaten da, osatzea.

Eta nolako hizkiak dituzte zuen abestiek?

Ar.- Hurbil sentitzen ditudan gaiak, barrua mugitzen didatenak... azaltzen saiatzen naiz.

Hitzekin jolastea gustuko dut eta egoera bat ez dut modu esplizitu batean azaltzen. Jolastea, metaforak erabiltzea atsegin dut, hizkuntzak ematen dituen hitz jokorako aukerak erabiltzea.

TABERNA *Buenetxea* KAFETEGIA

KAFE BEREZIAK:
IRLANDESA
ESKOZESA
KAPUTXINOA
BONBOIA

Ardotan espezializatua
Albariño
Riveiro
Rioja
...

Pintxo beroetan aukera zabala

PROBATU AL DITUZU GURE GOSARIAK?
TOSTADAK
KRUASANAK PLANTXAN
.....

FESTETAN OGITARTEKOAK EGONGO DIRA

**Pablo Mutiozabal 2 • Tel.: 943 369508
LASARTE-ORIA**

Probatuzazue batido naturalak gure terrazan.

OSO ONDO PASA SAN PEDROTAN!

Ezkontza ondorengo festa luzatu dezakezu gurean. Erreserbatu lehenbailehen

“ Urte hau definitzeko hitza Arramazka da, urte honetan egin duguna hori izan da

Abesti guztiak edonorenak egitearen magia hori asko gustatzen zait. Abstrakzioarekin, esaldiei bi zentzu emanez edo eta ironia erabiliz.

Ai.- Idazteko era kriptikoa baina zuzena da. Adierazi nahi duguna, ez da askotan besteei ulertzen dutena. Ez ditu gaiak esplizituki aurkezten, era abstraktuago batean baizik.

Ar.- Nolabait ere poetikoa goa, metaforak etab. landuaz.

Grabazioa eta ekoizpena zuen esku joan al da?

Ai.- Alberto Porresen Iruñeako estudioan grabatu dugu diskoa. Alberto soinu arkitektoa da, urte asko daramatza lanean eta Nafarroako talde gehienak bere estudioetik paseak dira, *Kerobia*, *Hesian*, *Barricada*...

Oso soinu txukuna atera digu, gure lehentasuna hori zelarrik, soinu aldetik lan txukun bat grabatzea.

Honen osteko, ekoizpen lana, Goiku eta bion esku egon da.

Asteak daramatzagu honetan. Hainbat entzunaldiren ostean, hurrenkera egokia topatu dugulakoan gaude, eta oraintxe bertan Iruñeako Copy-sanen izango da gure lehen lana kopiak egin eta egin!

Uztailaren 1a jo dugu lana kaleratzeko eguntzat. Inongo jabetza eredurik gabe kalera-tuko dugu lana, sorkuntza era unibertsal eta herrikoi batean ulertzen dugulako.

Kontzertuak ere eskaini dituzue, grabazioarekin batera...

Ai.- Horrela da. Astebururo nonb aiten jotzen dihardugu, asteen zehar diskoaren zehaztapenak erabakitzeke biltzen gara, entseatzeko...urte mugitua izan da musika aldetik 2010. hau guretzat.

Urte hau definitzeko hitza *Arramazka* da, urte honetan egin duguna hori izan da.

Ar.- Ez da berdina, kontzertua edonon eman eta etxera joatea edota, azken hilabetetako moduan, ia astebururo kontzertua izatea.

Horrek asteburu osoa taldekoekin makinatzen, gauzak prestatzen egotea esan nahi du, herriro jam sesioak egin, udan entseatzeko geratu, etab. Taldea kuadrilaren pareko fenomeno bat bihurtzeraino.

Zuen abestietako bat Panoptikoa Antzerki eta dantza asteen erabili zuten...

Ar.- Poz handia sortu digun esperientzia izan da dantza taldeak gure abestietako bat erabiltzea.

Emanaldia ikustera joan eta hamabi gazte gure abesti batekin dantzan ikustea momentu ahaztu ezina izan zen.

Eskerrak eman nahi dizkiegu lan honetan aritu diren gazte guztiei eta hauek bideratzen aritu den Maider Oiarzabali.

Gainera, herriko jaietan emango dugun kontzertuan, *Panoptikoa* kantua zuzenean eta dantzaz lagunduta ikusteko aukera izango duzue bertaratuko zareten guztiek.

Guzti honez gain, maketa lehiaketa ezberdinetara aurkeztu duzue zuen eskaintza...

Ai.- Lehenengo aukera *Euskal Herria* Zuzenean jaialdiko maketa lehiaketa izan zen. Jaialdian parte hartzeko aukera moduan ikusi genuen eta lau abestiak bidali genituen.

Horrekin batera, Donostia-ko maketa lehiaketa ere garai berean zenez, hara ere aurkeztu genituen kantuak. Lasarte-ko apurtxo bat beranduago izan zen.

Donostikoan finalean sartu gara eta hemengoan herriko saria irabazi dugu, beraz, gus-tura!

Zer suposatzen du herriko sariak Arramazkarentzat?

Ai.- Ekonomikoki, diskoa grabatzeko erraztasun bat izan da. Lasarte-Orian zeuden taldeak ikusi eta saria etxeratze-ko aukera genuela ikusi genuen.

Herriko taldeek beren proiektu puntualak aurrera ateratzeko modu egokitzat jotzen dugu honelako lehiaketen dinamika, baina Lasarten dagoen kultur eta zehazki musika sorkuntzari erreparatu, uste dugu askoz eragin-korragoa litzatekeela diru hori proiektu integral batean erabiltzea, denon onurarako izango den zerbaitetan.

Adibidez, hainbeste urte-tan eskatzen ibili arren, herrian oraindik ez dago taldeek entseatuak duten azpiegitura txukunik, herrian antolatzen diren musika jaialdiak ez dira laguntzen... uste dugu Lasarten badela musikan inbertitzen den dirua eta emankorragoan kudeatuko lukeen musikari taldea.

Hau horrela zergatik ez den gertatzen beste batzuei galdetu beharko diezu, guk ez baitugu ulertzen.

Diskora bueltatuz, aurkezpena egingo al duzue?

Ai.- Diskoko doinuak entzuteko aukera 29an Isla plazan izango den kontzertuan izango duzue.

Beraz hemendik, aurrera diskoaren aurkezpena, kontzertuak...

Ai.- Deituz gero, gu jotzeko prest.

Hasiera batean diskoa gure inguruan mugitzen saiatuko gara, inguruko herrietan etab. Gure emanaldietan ere eskuragai izango dituzue, hala nola, Trinitate Plazan uztailaren 10ean, Araian 17an... interneten dugun atarian www.myspace.com/arramazka, lana doan eskuratzeko aukera izango du hala nahi duenak.

Horretan arituko gara udara osoan zehar, musikarekin gozatu eta Euskal Herriko bazterrek ezagutzuz! •



Gle-apaindegi mistoa

Lucia

SAN PEDRO JAI ALAIAK OPA DIZKIZUEGU!

*Kale Nagusia 67
Tel.: 943 371908
LASARTE-ORIA*

DEL ORIA KRISTALDEGIA

OSO ONDO PASA HERRIKO JAİETAN!

- Ispiluak
- Beira apaingarriak eta alakatuak
- Merkataritzako instalazioak
- Dutxako pantailak
- Kristaleria oro har

**Uistin Kalea 11 (Zubieta plaza)
Tel./Faxa:943 362352**

AUTOESKOLA IZARRA

OSO ONDO PASAI!

www.autoescuelaizarra.com

BEREZKO MULTIMEDIA SISTEMA

MATRIKULA 2x1*

GURE TEST-ONLINEEKIN PRESTATU ZAITEZ!

***Baldintzak kontsultatu**

ERABILI GURE SIMULADOREA ETA AURREZTU %10 KLASA PRAKTIKOETAN

Geltoki Kalea, 11 - behea (Lasarte) Tel.: 943377005



Multimusikaleko aurkezpen kontzertua eskaini zuen Arramazka taldeak Jalgi tabernan.




Zorion-agurrak



Ion

Zorionak!! Ea elkarrekin beste pelikula bat ikustera joaten garen laister. Julen eta Xabaten partez.



Ion eta Naiara

Naiara eta Ion, zorionik beroenak zuen ezkontzagatik!!!! Ea ondo-ondo pasatzen deuzen hurrengo larunbatean, eta gu zuekin ere. Muxurik potoloena familia guztiaren partez.



Lurdes

Mila zorion eta mila muxu izeba! Beste patata tortila batekin ospatuko dugu! Julen eta Xabat, zure piratak



Natalia

Zorionak printzesa! Txo-kolatzeko bost muxu goxo familiaren partetik.



Saioa

Zorionak printzesa sei muxu potolo aita, ama eta Enekoren partetik.



Olatz

Zorionak zure 3. urtebetzetzean famili guztiaren partetik. Muxu pila bat.



Juan Mari

Zorionak zure gurasoen partetik. Bazkaria zure kontu!



David

Zorionak zure sema eta emaztearen partetik. Muxu handi bat. Oso ondo pasa zuren egunean.



Markel

Zorionak Markel eta txo-kolatzeko muxu handiak famili guztiaren partetik. Muuuuuu.



Irati

Zorionak zure etxekoan partetik. 7 muxu handi San Pedro egunean zuretzako.



Itziar

Zorionak guapa! Ondo ospatu astelehenean! Muxuak!

Oharrak

Goiegi Ibarreko zozketarako eskaerak

Datorren uztailaren 6an etxebizitzaren eskatzaileen erregistroan izena emateko epea amaitzen da, Goiegiko Ibarra promozio zozketan parte hartze aldera. Hau da, aipaturako zozketan sartuko dira martxoaren 15aren eta uztailaren 6aren artean izena eman duten pertsona guztiak.

Hala ere, erregistroak zabalik jarraituko du eskaera gehiago egiteko eta, modu horretan, uztailaren 6tik aurrera jasotzen direnak hurrengo promozioetarako hartuko dira kontuan.

Sorgin Jailetako materiala

Sorgin jailetako materiala salgai, asteartero, ostegunero larunbatero Okendo parean, Geltoki kalean. Zapiak dagoeneko salgai daude.

Txakur-hezkuntzako lantegia

Sanitateko Departamentuak txakur-hezkuntzako lantegia antolatu du. Doako lantegi honek bi atal izango ditu, bata teorikoa, uztailaren 8an kulturetxeko hitzaldi aretoan eskainiko dena eta beste praktikoa, uztailaren 9an, Atsopakarko zelaian, txakur-komunaren ondoan egingo dena. Lantegi horretan parte

hartu nahi duten herritarrek, aldeztu aurretik eman behar dute izena, Sanitateko Departamentuaren 943 376 055 telefonora deituz.

Udako klaseetan izena ematea

Ziteke Akademiak jakin arazten du, uztailak 5an, udako klaseak hasten direla. Izena ematea astelehenean ostiralean 10:30etik 12:30era egin daiteke.

Udako ikastaroetan izena ematea

Kirol Zerbitzuak jakin arazten du, heldu, zein umeentzako udako ikastaroetan izena emateko epea ekainaren 7an ireki zela. Informazio gehiago eskuratzeko edo izena emateko bi aukera daude, kiroldegiko bulegora hurbildu, goizeko 10:00ak eta 12:30ak artean edo 17:00-19:00etara, edo 943 376 182 zenbakira deitu.

Mendigorriara doazenentzako oharra

Bizikletak uztailaren 2an, 16:00etan Hipodromoaren ondoko aparkalekura eraman behar dira. Bide batez gogoratu, bakoitzak bere mahai tresnak ere eraman behar dituela. Zalantzarik izanez gero, 943 371448 telefonora deitu.

LUIS CAR

autobusak

HERRIKO JAI ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUEGU!



- Espainiako eta nazioarteko garratze-zerbitzuak.
- Enpresentzako, ikastetxeentzako...zerbitzuak.
- 15 plazako microbusak.
- 55 plazako autocarrak.
- Elbarrientzat behar bezala prestatutako autokarrak.

Uzturre plaza 1 Tel./faxa:943366316 Mobila: 629461897 LASARTE-ORIA



• TB/HI-FI
• Instalazio elektrikoak **IAI ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUEGU!**

• Material elektrikoak
• Argiak
• Etxetresna elektrikoak

ELEKTRIZITATEA ARREGUI

Kale Nagusia 39 • Tel.: 943 361080 • Tel./Faxa: 943 372521 • LASARTE-ORIA

Maite Erkizia

ONDO IGARO HERRIKO JAIETAN!

Bias de Lezo 5, behea
Tel.: 943 370254
LASARTE-ORIA

ILE-APAINDEGIA ESTETIKA

EGUNEKO MENUA

• RAZIOAK
• PLATER KONBINATUAK
• PINTXOAK
• BOKATAK
• SANDWICHAK
• ETXEKO POSTREAK
• GOSARIAK

Jalai *cafe bar*
Kalitatea eta preziorik onena leku berean

ONGI PASA HERRIKO JAIETAN!

KALE NAGUSIA 67 • Lasarte-Oria

TEL.: 943 372760

ONDO IGARO JAIETAN!

• EGUNEKO MENUA
• ASTEBURUETAKO MENUA
• TRADIZIOZKO SUKALDARITZA
• ETXEKO POSTREAK

Larre

Larrekoetxe bidea 10 • LASARTE-ORIA
Tel.: 943 361012 / 943 360480

Fernández
e h u n a k
ONDO IBILI JAIETAN!

Nahi edo behar duzun huraxe aurkituko duzu gurean!

Kale Nagusia 2 • Tel.: 943 361607 • LASARTE-ORIA

SANTA BARBARA
TABERNA • JATETXEA

TOKI APROPOSA
EDOZEIN OSPAKIZUNETARAKO

Santa Barbara auzoa 2 • Tel.: 943 331387 • HERNANI

SAN PEDRO JAI ONAK PASA!

Deitu aldez aurretik, tokia hartzeko!

OSO ONDO PASA HERRIKO JAIETAN!

INQUIETUD
Neurriak 36tik... 60ra

Nagusia 49
Tel.: 943 370 290

GOXOKIS GOXUA

Eskerrik asko gugan jarritako konfidantzagatik

OSO ONDO PASA HERRIKO JAIETAN!

Geltoki Kalea 9 behea • Tel.: 637 462666



San Joan bezperako sua piztu eta honen inguruan kalejira alaia egin zuten herritarrek.



Aurretik, heldu, zein haurrek fandango eta arin-arina dantzatu zuten Erketzeko lagunekin batera.

Gau magikoaren sua

Lasarteoriatar ugari bildu zen asteazkenean Andatza plazan San Joan bezperako gau bereziko ospakizunak ikusi eta urte honetako oroitzapen txarrak erretzera

Euskal Herriko ohiturari jarraituz, asteazken gauean, San Joan bezpera ospatu zen gure herrian.

Eguraldia lagun, herritar ugari bildu zen udaletxe aurrean Erketzeko dantzarien zortzikoa ikustera.

Ondoren, txistularien doinuei jarraituz, udal ordezka-

riak, dantzariak eta herritarrak Andatza plazara igo ziren.

Bertan, Soka-dantza dantzatu zuten Erketzekoek. Fandango eta arin-arinarekin herritar ugari atera zen festaz gozatzera.

Eta herritarrek kalejira egin zuten bitartean, San Joan sua piztu zuen alkateak. •



ETXARRI

DIGITAL

943361484 Nagusia 17 LASARTE-ORIA

KIOSKO DIGITALA



SAN PEDRO JAIAK 2010



ERREBELATU DIGITALEKO MAKINA BERRIA



**Errebelatu DIGITALA ORDU ERDIAN
KARRETEEN errebelatua
EZKONTZETAKO erreportajeak
ESTUDIOKO erreportajeak
makina DIGITALAK
30X90 neurrirainoko ANPLIAZIO DIGITALAK
Markoak jartzeko tailerra
Opari pertsonalizatuak**



San Pedro jaietako aurrekariak

Egun hauetan, hainbat ekintza burutu dira kiroldegian. Haurrek gozatzeko aukera izan dute Ureta festan; helduek, berriz, urtean zehar ikasitakoa erakutsi dute



Biyak Bat erretiratuen elkarteko kideek sasoi onean daudela erakutsi zuten gimnasia eta aerobik erakustaldian.



Haurrek ederki gozatu zuten atzo goizean, igerilekuan jarri ziren puzgarri, txirrista eta hainbat gauzeekin.



Zentro Zibikoko emakumeek ederki astindu zuten gorputza batukarekin.



JAVIER ERRAZQUIN

estilista

**GIPUZKOAKO
MISS ETA MISTER
LEHIAKETAKO
ESTILISTA OFIZIALA**

OSO ONDO PASAI!


Pintore Kalea ,5
Tel.: 943 370311
20160 LASARTE-ORIA

I. URRUZOLA ARROZTEGIA



**HERRIKO JAI ALAIAK
OPA DIZKIZUEGU!**

- › Era guztietako arotz-lanak.
- › Armairu barrenduak.
- › Etxe barruko konponketak.
- › Parket flotantea.



Oria etorbidea 4, behea
(Errekatxo jatetxearen ondoan)
Tel.: 943 371200 / 610 413131
LASARTE-ORIA

**TXERRI-BELARRI GUTIZIAZKOAK
ETA OLAGARROA**

**E
P
E
L**



**OSO ONDO IGARO
HERRIKO JAIEAN!**



AUKERA IZUGARRIA

- pintxoetan
- razioetan
- ogitartekoetan
- plater konbinatueta

Goikale 1 • Tel.: 943 362701 • LASARTE-ORIA

COPILASARTE

**ALAITASUNA
SAN PEDROTAN!**

- ESTANPAZIOAK
- FAX-ZERBITZUA
- FOTOKOPIAK
- AZALEZTATZEAK
- PLASTIFIKAZIOAK

Kale Nagusia 34 • Tel.: 943 366930
Faxa: 943 366931 • Lasarte-Oria



Jaietako zure argazkiak argitaratzea nahi al duzu?

Larunbatean hasi eta asteartera bitartean denetarik antolatu da gure herrian San Pedro Jaien barruan.

Txintxarriko kazetariok kalean izango gara egun hauetan, kaleko giroa eta ekitaldi ezberdinak hurrengo ostiraleko zenbaki berezian orriotara ekartzeko.

Jakin badakigu, zuetako askok ere, kamara digitalak boltsoan edo sakelean eramaten dituzuela, beti argazkiak ateratzeko prest!

Beraz, beste urtetan bezala, gure proposamena ondorengoa da, San Pedro jaien ondoren zuen etxeetara iritsiko den Txintxarri berezian zuek ateratako

argazkiak argitaratzea: kuadrilako irudiak, kaleko bitxikieriak, sorpresak, parrandakoa, parkekoa, danborradakoa, familikoa, kontzertutakoa...

Zuen laguntza eskertuko dugu.

Beraz, animatuz gero argazkiak txintxarri@txintxarri.info helbide elektronikora bidali, beranduenez ostegun goiza bitartean, edo bulegotik pasa asteazkenetik aurrera.



Animatu zaitezte!

YOLANDA TABERNA
ONDO PASA SAN PEDROTAN!
JANARIAK EMATEN DITUGU:
EGLINEKO MENUA,
BOKATAK,
SANDWICHAK,
PLATER KONBINATUAK,
Pintore 1 • 695 501890

Usla
MEKANIKAKO ZERBITZU OROKORRA
SAN PEDRO JAI ALAIAK OPA DIZKIZUEGU!
Garajea
Jaizkibel plaza 2, behea • Tel.: 943 370203 • LASARTE-ORIA

ONDO IBILI JAIETAN!
FISIOTERAPIA ZENTROA
Ibaiondo
Fisioterapia Masajeak
Errehabilitazioa Osteopatia
Ola Kalea, 12 - behea, etx.
LASARTE - ORIA
Tel / Fax: 943 370 306 - fisiobaiondo@gmail.com

Agate
ESTETIKAKO ARETOA
KALE NAGUSIA 51 • TEL.: 943 370549 • LASARTE-ORIA

- Makillajea
- Manikura
- Pedikura
- Solariuma
- Laser bidezko Depilazioa
- Depilazio elektrikoa
- Aurpegiko tratamenduak
- Masajea

OSO ONDO PASA HERRIKO JAIETAN!!
berria

ONDO PASA HERRIKO JAIETAN!
Antonio Benito
Erregistratzeko kutxak eta pantaila taktila dutenak
Aralar plaza 1, behea
Tel.: 943 371313
20160 LASARTE-ORIA



75
URTEURRENA
1935-2010



ERAKUSKETA ETA DENDA
Geltoki kalea 21 • LASARTE-ORIA
Tel.: 943 363147
linterneriaillarreta@yahoo.es



ILLARRETA
ITURGINTZA

SAN PEDRO JAI ZORIONTSUAK
OPA DIZKIZUEGU!



TAILERRA ETA BULEGOA:
Ugaldea polig. 8 • Tel.: 943 361752
USURBIL • illarreta@yahoo.es



- Zink, berun eta arbelean eraikuntzak eta konponketak
- Instalazioak: garbitzeko ura, berogailua, gasa, zoru bero-emaila eta aire girotua
- Erakusketa eta salmenta: aparatu sanitarioak, kanilak, komuneko altzariak, manparak eta osagarriak

- Igeltserotza orokorra
- Etxebizitzaren eta lokalen berrikuntza osoa
- Gremioen kordinazioa
- Arreta pertsonalizatua



Zure konfidantzari
erantzun
egiten diogu



GARRI BERRIAK, ZERBITZU BERRIAK



ETXERA ERAMATEKO ZERBITZUA DOAN
50€ BAINO GEHIAGOKO EROSKETETAN

Bisitatu
gure produktu
freskoen sekzioa



Juan XXIII plaza 2 behea
Tel.: 943 364647





IZARRA BITXITEGIA



**SAN PEDRO
JAI ZORIONTSUAK
OPA DIZKIZUEGU!**

Geltoki kalea 19 • Tel.: 943 371384 • Juan XXIII.a plaza, z/g • Tel.: 943 364945



www.izarrabitxitegia.com

IPARJOY A.I.E.

